



7.000 turistari ostatu emateko tokia dago gure herrietan

Berriki iragan den Aste Santuan bete-beteak egondu dira inguruko landa-etxe, aterpe eta hotelak. Orain, berriz, uda sasoiari begira ari da turismotik bizi den jendea, orduan ere betekada ederra espero baita. Herriz herri egindako kalkuluen arabera, ia 7.000 bisitarik lo egiteko tokia dago herri hauetan, duela 6 urte zegoena baino puskaz gehiago. Dena den,

Sara eta Senperen herrietan dago eskaintzarik handiena. Bi hoietan soilik, Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitzalde guzian haina turista hartzen ahal dituzte. Turistek gehien maite duten tokia Larungo Gaina da, duarik gabe, iaz 355.000 lagun goitu baitzen Tren Tiki-

Sara eta Senperen soilik, Baztan, Malerreka eta Leitzalde guzian haina turista hartzen ahal dituzte

an. Kontuan hartuta Nafarroa osoan 250.000 turista ibili zela joan den udan, pentsa zer aldea dagoen Lapurdi eta Nafarroako turismo planteamenduetan. ➡ 3



24 Kultura:
Amets Arzallus nagusi Nafarroako Bertsolari Txapelketan

16 urtek hendaia hau Nafarroako txapela irabazi duen bertsolari gazteena bihurtu da. Bigarren Xabier Legarreta aranoarra izan zen.

9 Hontaz eta hartaz:
Botikak, lege egitasmo berriaren aurka
UPNk ezarri nahi duen legeak kalidadea murriztuko lukeela diote botikariek.

**MUEBLES
A METS**

Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



*Aluminioz egindako
altzariak*



*Kanpoan argiztapen
egokirako era
guzietako farolak*



*Terraza eta
lorategirako altzariak*



EGURRA

*Hezetasunarendako
tratatuak, egur
tropikalak
TEKA,
IROKO,
METALA*





TURISMOAREN BILAKAERA

7.000 turista hartzeko tokia dago herriotan

Aste Santuko oporraldia probextuz milaka bisitari izan ditugu inguru hauek ezagutzeko asmoz bazter guzietatik etorriak. Udan ere jende andana hurbilduko da honat, eta turismotik bizi den jendea uda sasoiari begira ari da dagoeneko. Gero eta landa etxe, aterpe eta kanpin gehiago ikusten da ixkin guzietan. Herriz herri egin dugun kontaketa arabera, ia 7.000 turistendako lo egiteko tokia dago gaur egun. Hori bai, horien erdiak baino gehiago Sara eta Senperen pilatzen dira. Saran bakarrik, 2.000 turista baino gehiago hartzen dituzte udan, herriak dituen biztanleak haina.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **ASIER GOGORTZA**

Iragan berria dugun Aste Santuan turista franko ibili da bazter hauetan. Urdaubi eta Zugarramurdiko lezeak ikusten ia 9.000 lagun izan dira egun hoietan, eta Bertizko lorategian, berriz, 2.400 lagunetik goiti.

Hiruak Bat elkartetik adierazi digutenez, berriz, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako landa etxeak bete beterik egondu dira, eta udako ere gisa berean ibiltzea espero dute.

Duela 6 urtetik honat aunitz hazi da herri hauetako turismo eskaintza. 1994an Baztan, Bortziriak eta Malerrekan 1.000 turistek lo egiteko tokia zegoen justu-justuan. Gaur egun, landa etxe, hotel edo kanpinen artean ia 4.000 turista hartzeko prest daude herri hoiek. Eskualde guzian bilakaera berdintsua izan da, eta bisitariak ere gehitu egin dira eskaintza handitu egin den modu berean.

Inguru hauetako gune turistiko bisitatuena, Larungo kaxkoa da, Ibardingo komertzio-

Baliabide turistikoak herriz herri

▼ Datuei begiratzuz, harritzekoak dira Sara eta Senpereko kopuruak. Baztan-Bidasoa eta Leitzalde guziak haina turista hartzeko gaitasuna dute bi herri hoiek.

▼ Herri guzietan Saran biltzen den turista kopurua bilduko balitz, 28.500 turistikak inbadituko gintuzten uda sasoian.

▼ Kontrako adibidea Leiza eta inguruko herriena dugu. Arano eta Areson ez da lo egiteko tokirik batera, eta Leitza bertan bi hostal bertzerik ez daude.

ZEINUEN ERRANAHIA



Apartamentua



Landa Etxea



Kanpina



Hotel-Ostatu/Pentsioa



Aterpetxea



Etxe kopurua



Logelak / Ganbarak



Zenbat jenderendako

KOPURUAK



303 Apartamentu



136 Landa Etxe



14 Kanpin



46 Hotel / Pentsio



5 Aterpetxe



6.942 jenderendako

	 Kopur.		 Kopur.		 Kopur.		 Kopur.		 Kopur.		 DENETARA	
ALMANDOZ							1	15				30
AMAIUR			6	19								38
ANIZ			3	8								16
ARANO												0
ARANTZA			2	5					1	135		140
ARESO												0
ARIZKUN			9	37			2	13				100
ARRAIOZ			5	17								34
AZPILKUETA			6	22								44
BEINTZA-LABAIEN			1	3					1	32		38
BERA			9	34			2	17				102
BERROETA												0
DONAMARIA			4	14			1	5				38
DONEZTEBE			1	3			2	17				40
ELBETE			1	6								12
ELGORRIAGA			2	9								18
ELIZONDO			3	12			2	108				240
ERATSUN			2	5								10
ERRATZU			8	31	1	500						562
ETXALAR			17	52			2	46				196
EZKURRA							1	5				10
GARTZAIN			2	10								20
GOIZUETA			1	5	1	232						242
IGANTZI			1	4			1	6				20
IRURITA			3	9								18
ITUREN			5	12			3	32				88
LEGASA			1	3								6
LEITZA			1	3			2	19				44
LEKAROS			2	5			1	3				16
LESAKA			2	10			2	17	1	64		118
NARBARTE			7	16					1	80		112
OITZ			2	8								16
ORONOS-MUGAIRI			2	10			3	52				124
SALDIAS			2	6								12
SARA	199	840			4	668	5	94	1	375		2.071
SENPERE	104	468			6	617	11	314				1.451
SUNBILLA			6	17	1	460						494
URDAZUBI			7	23	1	180	4	39				304
URROTZ			2	9								18
ZIGA			1	4								8
ZUBIETA			3	10			1	11				42
ZUGARRAMURDI			7	25								50
Denetara	303	1308	136	466	14	2657	46	813	5	686		6.942

ak alde batera uzten baditugu bederen. Iaz, urte osoan, Saint Ignace lepotik 355.000 bisitari goitu ziren tren ttikian. Kopuru horrek bakarrik, Nafarroa osoan ibiltzen den turistak gainditzen ditu, denerata 250.000 inguru baitira.

Sara eta Senpere, turisten kabi

Sara eta Senpere dira, alde handiarekin, turistik hartzeko hobekien prestaturik dauden herriak. Ondoko orrian ageri diren datuei erreparatu, ikusten ahal da Sara eta Senperereko ohe kopuruak soilik, herri guzietakoaren erdia egiten duela. Denerata ia 7.000 turistendako lo egiteko tokia baldin bada, 3.500 baino gehiago dira Lapurdiko bi herri hauetan.

Senperen bakarrik, herrian 4.000 lagun eskas bizi direla kontuan izanik, 1.400 turistek lo egiteko tokia badute. Horrek erran nahi du denboraldia sasoi betean dagoenean herria heren batean hazten dela. Eta Senperereko datuak harriarriak badira, zer erranik ez Sara-koak. Normalki 2.180 bat lagun bizi da herrian, bai-

nan bertze hainbertze turistendako tokia dute herriko hotel, kanpin eta laborantza etxeen artean. Beraz, udan bikoiztu egiten da herriko biztanle kopurua.

Masifikazioa saihestea

Dena den, ezin da inolaz ere Lapurdiko eta Nafarroako turismoaren arteko konparaketarik egin, Lapurdin aunitzez lehenagotik hasi baitziren turismoari zukua ateratzen. Aunitzen ustez, gainera, turisten masifikazioak kalte handia egin dio herri hoietako kultura eta bizimoduari.

Nafarroako iparraldean, ordea, turismoaren garapena mantsoagoa izan da. Azken finean, herriko bizimodua eta turismoa modu orekatuagoan ezkontzeko aukera eman du horrek. Nora Eneterreaga Bertizko Turismo Partzuergoko kudeatzailerak da, eta filosofia horrekin segitzeko asmoa dutela adierazi du: «*toki guzietan turista karga bat hartzen ahal dute. Orain 3.800 beharrean 8.000 plaza bagenitu nolabait saturazioa izanen litzateke*». ■

✎ Nora ENETERREAGA Bertiz Turismo Partzuergoa

«Etortzen diren turistek errepikatzea lortu behar da»

1994ko turismo planaren arabera, 10 urtetan, hau da, 2004rako, Baztan, Malerreka eta Bortzirietan turistendako 10.000 ohe jartzea aurrakusten zen. Asmo hori beteko dela uste duzu?

Zati batean bete da, baina beste aldetik 10.000 ohetan pentsatzea sobera dela uste dut. Hori ez litzateke ona izanen eskualdearentzat. Beraz, helburu bezala ez nuke hori hartuko. 94an, Partzuergoaren hasieran, 1.000 ohe ingurubesterik ez zeuden, eta gaur egun ia 3.800 ohe baditugu. Kontuan hartuta 22.000 biztanle inguru bizi garela uste dut nahiko kopuru polita dela hori.

Zein da, zure ustez, orain baino turista gehiago etortzeak duen alde txarra?

Toki guzietan turista karga bat hartzen ahal dute. Momentuz aste santuan edo udan dena beteta dagoenean ez du deus txarrik suposatzen hemengo kultura eta ingurugiroarentzat. Baina orain 8.000



plaza bagenitu nolabait saturazioa izanen litzateke.

Zer egiten ahal da turistak egun gehiago gelditzeko?

Zaila da. Orain jendeak gero eta gehiago puskatzen ditu oporrak. Lehen hilabete osoa ematen zen toki berean, baina orain toki gehiagotara jo-

aten da denbora laburragoan. Beraz, saiatu behar da egonaldiak pixka bat luzatzen, baina batez ere errepika dezatela bilatzen. Pertsona batzuk asteburu batean etortzen badira lortu behar dugu oso gustora egotea eta beste asteburu batean ere etortzea.

Bertizek antolatzen dituen ekitaldi aunitz turista hoiek erakartze aldera egiten dira, ez da hala?

Bai, egia da Kultur udan egiten dela, baina Filme Laburren Lehiaketa, adibidez, irailean egiten da. Jardunaldi gastronomikoa eta bertze ekitaldi aunitz ere denboralditik kanpo egiten dira, bertze sasoietan ere jende gehiago etortzea bilatuz.

NAFARROAKO ESKUALDERIK BISITATUENAK 1999ko udan

* Nafarroako Turismo Bulegoetako datuen arabera

Erribera	13.149	%5
Lizarrako eskualdea	44.172	%18
Erriberri-Zangotza	33.109	%13
Iruñea eta Iruñerria	51.879	%21
Aralar-Urbasa	7.908	%3
Pirinio atlantiarra	15.927	%6
Ekialdeko pirinioa	83.514	%33

Inguru hau bisitatzen duen turistaren profila

▼ Leitzaldea, Baztan, Malerreka eta Bortzirietara etortzen diren turista gehienak Madril, Katalunia eta Valentziatik etortzen dira.

▼ Sara eta Senpere aldera, berriz, Bordele, Paris eta Inglaterratik etortzen dira gehienbat.

▼ Gipuzkoa eta Bizkaiatik ere asteburu pasa etortzen da jende franko.

▼ 25 eta 44 urteko bikoteak izaten dira bisitari gehienak.

▼ Hiru turistatik batek landa etxean ematen du gaua, baina hiru hoietatik bertze batek eskualdetik kanpo egiten du lo.

ESKUALDEKO TOKIRIK BISITATUENAK 1999an

Larungo tren ttikia	355.000
Sarako lezeak	104.000
Bertizko lorategia	78.116
Zugarramurdiko lezeak	66.690
Urdazubiko lezeak	32.229

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-

goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba

Fernandez, Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu, Franck

Dolosor, Margari Etxenike, Koro

Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet, Elixabet Iturri-

a, Garbiñe Maiz, Oskar Txope-

rena, Pello Apezetxea, Aitor

Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

IRAKURLEAK MINTZO

Maximo Hernandorena:
zerbitzari baten
oroitzapena

Lagun eta adiskide bati buruz idaztea ez zait erraza egiten, batez ere lagun hori heriotzak eraman berri duenean. Sentimenduak eta oroitzapenak, pilatuak eta nahiak izateaz gain, sobera xamurrak eta konplexuak dira, nornahik solasez azaltzeko. Solasaren ugari-az eta solaskeraren aberatsaz hornitua, sentimendu eta oroitzapen horietara gehixeago hurbiltzeko gai izanen da, behar bada. Niri, ordea, ia ezinezko eginkizuna bilakatzen zait. Eta, hala ere, baditut arrazoiak, xarmantasunez ez bada ere, Maximori buruzko zenbait gauza adierazteko.

«Haundia izan nahi duena, zerbitzari izan bedi», Nazareteko Jesusen errana dugu. Jendeok berezko bezala dugun nor baino nor gehiagoko lehiaketan ikuspegi eta jarrera berria eskaini zigun Jesusen. Nor izatea, denei laguntzeko prest egotea baldin bada, Kristoren ebanjelioak dioenez, Maximo bazen nor, laguntzeko prest baitzen beti, ohi den baino gehiago. Berdin baitzaitzaion on-ziak garbitzea, taldeko bazkariaren ondok; bere autoan noranahi norbait eramatea edo eta bertze edozein beharretan ondoan izatea, eta eskua luzatzea. Ezagutu dutenek lekuko dira, lekuko gara, Intza, Irurtzun edo Lesakan.

Maximo, ttikitari, erdi-euskaldun zela erraten ahal genuke. Bertze hainbat haran edo bailarako erdigune diren herritan bezala, Lekunberrin erdalduzakeak sa-

rrera haundia izan zuen, eta horren ondorio bertzerik ez zen izan, Maximoren euskara landarea ahul samarra izatea. Araizko urek, ordea, indarberritu zuten landarea Mailoen itzalean, Intzan bizi-tutako urteetan. Hori urrats bat izan zen, garrantzitsua, Maximok bere sustraietarantz emandakoa. Baina ez hondarrekoea. Euskal norberatasunaren aurkitze eta bereganatze bide luzea gelditzen zitzaion, oraindik, bertze gutako hainbati bezala. Eta, aunitzek ez bezala, urratsez-urrats aintzine-ra egin zuen, heldutasunera. Norbera, jende bezala eta herri-kide bezala ezagutzea, ohartzea, eta aintzat hartzea, heldutasun mailak irabaztea baita.

Euskara, ebanjelizatze lanerako tresna huts dela pentsatzetik, ebanjelioaren edukina ere bade-la ohartzea; Euskal Herria ebanjelizatze objektu eta hartzaile huts izatetik, ebanjelio beraren subjektu eta mami ere badela ohartzea, giza-heldutasun eta kristau-heldutasun bidean aintzineria aunitz egitea dela uste dut. Eta Maximok hori lortu zuen. Maximo nor izan zela erran dudari bezala, norbera ere izan zela erraten ahal dut. Euskal heldutasun eta kontzientzia barneratze horregatik bere prezioa ordaindu ere egin behar izan zuen, beti bezala. Izan ere, kontzientzia horren koherentzia-jokatzeak sufrimendu franko ekarri zion, gaurko Euskal Herriko egoeran hainbat jenderi bezala. Herrietako zenbait jenderen eskutik, baina Nafarroako Elizaren eskutik gehien bat, behar bada,

apeza zenez gero. Gaur egun, oraindik, euskaldun kontzientea eta arabera jokatzeko saiatzen dena, guttienez susmagarria jotzen baita elizan, ez hain ongi ikusia, eta baztertua aunitzetan. Gaur egun Apez Batzarrean bat euskaldun eta euskaraz agertze hutsa aski da bilkurako giroa tenkatu eta gogortzeko, gehien gaitzespena irabaziz. Hori adibide bat bakarra da, aunitz gehiago aipatzen ahal baintuzke. Eta horrelakoak Maximok bizitu izan zituen eta jasan.

Maximo nor izan zen eta norbera izan zen. Hori bai, ondorio gutti-ekin. Eta erran ditudan ez ditut Maximoren laudorioak kanta-tzeagatik erran. Maximok ez du, ez lehen eta ez orain, gure laudorien beharrik, ezta nahi ere. Guk, ordea, bai. Guk behar dugu, guri lagungarri zaigu Maximo bezalako jendeen oroitzapena eta erreferentzia gogoratzea eta oihu-katzea, guk ere euskal giza-hel-dutasunean eta elkarrenganako solidaritza aintzineria jo deza-gun.

PELLO APEZETXEA
APEZA



Gida 2000

Akats baten ondorioz, Partikularren Gidan **Lekarozko** telefono bakar bat ere ez dugu sartu. Barkamenak. Bertze akatsen bat topatzen baduzu deitu 948 631188 telefonora. Esker Mila.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ✧ Langile Autonomoak
- ✧ Nekazariak eta mendi-langileak
- ✧ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✧ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✧ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✧ Diru-laguntza ezberdinak
- ✧ Kontabilitateak
- ✧ IVA eta IRPF
- ✧ Errenta aitortpenak
- ✧ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ✧ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Jon Arretxeren
egun literarioa

Gu Urdazubi-Zugarramur-
diko ikasleak gara, DBH-1,
DBH-2 eta 6. mailakoak. Joan
den otsailaren 22an gure mai-
suak Jon Arretxe idazlea eto-
rri behar zela erran zigun.
Ekitaldia guk liburuak nola
egiten diren jakiteko eta idaz-
le bat ezagutzeko antolatu
zuten. Horregatik, «Harresi
Handirantz» bere liburu aro-
si ondoren, egunero kapitu-
lu bat irakurtzen genuen.
Liburu guztia irakurri genu-
larik, kapitulu bakoitzaren la-
burpena egin genuen. Irakas-
leak guk egiten genuen labur-
pena zuzendu eta gero, 3.
eta 4. mailako ikasleengana
joan ginen, guk egiten genitu-
en laburpenak kontatzera.
Haiek arretaz eta gogoz en-
tzuten zuten, nahiz eta ba-
zen bakarren bat kasu ziki-
nik egiten ez zuena eta irri
egiten ziguna. Bertzalde, biz-
kaieraz hitz batzuk ateratzen
ziren eta guk gure hizkeran
jarri behar izan genituen.

Jon Arretxe etorri zenean Ur-
dazubiko eskolara, guk iraku-
rritako «Harresi Handirantz»
bere liburuaren nondik-nora-
koak kontatu zizkigun, pau-
soz-pauso. Otsailaren 22an,
Jon ailegatu zenean, gure
maisua pelotileoan hasi zi-
tzaion. Gero, hark filminaba-
tzuk erakutsi zizkigun, egin
dituen bidaiei buruz. Bertan,
liburuan agertzen den ibilbi-
dea egiten agertzen da. Be-
rak kontatzen digu, liburu
idazteko bidaia asko egin zi-
tuela: Asia, India, Txina...
Zenbat lekutan egon den
Arretxe hori! Bidaia horieta-
ko bat egiten ari zela, Indian
barrena, Rama, 13 urteko
mutila, ezagutu zuen eta hu-
ra bezalako bat da «Harresi
handirantz» liburuan ager-
tzen dena (...).

URDZUBI-ZUGARRAMURDIKO
ESKOLAKO IKASLEAK



Saririk gabeko
saria

Herri Urrats hurbil dugula eta
iaz gertatutakoa argitaratu
nahi dugu, berriz ere pastu
ez dadin. Kriston sorpresa

hartu genuen Herri Urratseko
zozketan bidai batekin sari-
tuak izan ginela jakitean.
Baina sorpresa haundiagoa
izan da saria eskuratzeko
an izan ditugun trabarikuste-

an. Han hemenka ibili ondo-
tik, oraino ez dugu bidaia lor-
tu.

Ez dugu deus besta polit ho-
nen kontra, baina arduradu-
nei zozketan fundamentu

gehiago izatea eskatu nahi
diegu lerro hauen bitartez.

EVA



99

ZURE AITORPENERAKO BEHAR DUZUN IPAR-ORRATZA

ko Errenta Aitorpena



AURRERAPENA EDO
FINANTZIAZIOA

AHOLKULARITZA

ABANTAILA FISKALAK
DITUZTEN
FINANTZA-PRODUKTUAK

AITORPENAREN
TRAMITAZIOA



NAFARROAKO
RURAL KUTXA

Informazio gehiago nahi baduzu, hurbil
zaitez Caja Rural-eko zure bulegara



ttipi-ttapa TXARTELA

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta deskontuak izanen dituzu honako denda guzietan:

DESKONTUAK

AUTO ETA BIZIKLETA TALLERRAK

KATEA BIKE..... Bera
DATUGELAY..... Elizondo
SANSIÑENA..... Elizondo
ZALAIN MOTOR.... Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER..... Bera

ARGAZKI DENDAK

AYLA..... Bera
GOIKO..... Bera
MENA..... Doneztebe/Elizondo
ZALDUA..... Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

EDURNE..... Bera
SAIOA..... Doneztebe
J.J. PICABEA..... Doneztebe
TXIRRISTA..... Doneztebe
KAMAMILA..... Doneztebe
IPINGI..... Elizondo
MARELI..... Elizondo
KATTALINGORRI... Elizondo
FANTXIKE..... Elizondo
OSIÑA..... Lesaka

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS..... Lesaka
ALTZURI..... Lesaka

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA..... Doneztebe
MARIAN..... Lesaka

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK... Elizondo
ZELA KIROLAK.... Bera
AGARA KIROLAK... Bera

LENTZERIAK

MARICRUZ..... Doneztebe
MAITE..... Elizondo
DEÑE..... Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS..... Elizondo
LEGARRA..... Lesaka
MAIMUR..... Leitza

OPTIKAK

OSTARGI..... Bera
ARGIBEL..... Elizondo

ESKULANEKO MATERIALAK

EL DESVAN..... Bera

PENTSUAK

MENDAUR..... Doneztebe

TINDATEGIAK

JAIONE..... Doneztebe

ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS..... Bera
KALOTXA..... Bera
GOÑI..... Elizondo
NEREA..... Doneztebe
OSTIZ..... Doneztebe

**Eskatu lehenbailehen zure
TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu
ematen dituen abantaila guztiak**

☎ 948 631 188



✍ Mikel LASARTE *EHNEko kidea Jatorrizko Izendapenean*

Artzainen garaipena Erronkariko Jatorrizko Izendapenean



Azkeneko iturria bere onera etorri da Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Izendapenean. Kanpoko ardi arraza industrialen erabilera baztertu egin da eta Latxaren esnea izanen da, orain arte bezala, izendapenearen oinarria, Nafarroako Gobernuak argitaratutako Foru Agindu batek dioenez.

Gure uste-tan erabaki hau sektorearen garaipena bezala hartu behar da, izan ere sindikalki asko borrokatu den gaia izan baita. Denbora luzez bakarrik eta kontrarrenteari kontra ibili bagara ere, azkenik Nafarroako Gobernuaren erabakiak arrazoa eman digu eta guk eskainitako argudio berberak erabili ditu Foru Agindua idazterakoan.

Izendapenean beste esne mota batzuek erabiltzeko ahaleginak egin dituztenak gutxi batzuk besterik ez dira izan, industria bereziki, esne asko eta merkea lortu ahal izateko. Bide hori, orde, kaltegarria da artzainen gehiengoarentzat. Kanpoko ardien esneari ateak irekitzeak, besteak beste, honako ondo-

rio hauek ekarriko lituzke, gure uste-tan: enplegu eta dibersifikazioaren galera ohizko ekoizpen inguruetan, produkzioaren kontzentrazioa eta deslokalizazioa, artzantza-eredu aldatuta modu intentsibo eta industrializatura joaz, osasun arriskuak, latxaren hobekuntza genetikoan eginitako lana zapuztea, gizarteari iruzurra egitea kalitatearen murrizketaren bidez, ekoizpenaren bana-

Izendapenean beste esne mota batzuek erabiltzeko ahalegina egin dituztenak gutxi batzuk besterik ez dira izan, industria bereziki, esne asko eta merkea lortu ahal izateko. Bide hori, orde, kaltegarria da artzainen gehiengoarentzat.

lizazioa eta gure nekazaritza, kultura eta gastronomia ondarearen galera.

Uste dugu, beraz, aurrerapauso bat eman dugula bertako artzantzaren alde, Europar Batasuneko beste izendapen batzuek daramaten bidea jarraituz. Iparraldeko Ossau-Iratyko jatorrizko izendapenean, edota Roqueforten kasuan bide berbera daramate, izendapenak arrazari, lurri eta produkzio ereduari lotuz.

Lege egitasmo berriaren aurka azaldu dira botikak

Zerbitzuaren kalidadeak txarrera egingen duela uste dute

TTIPI-TTAPA

Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak proposatutako botiken lege egitasmo berriaren ez daudela konforme adierazi dute Nafarroako botikariak. Hori baino gehiago, Konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela ere uste du-

te: «Gaur egun, erreze-ta baldin baduzu, Espainia guziko edozein botikatan hartzen ahal dira sendagaiak. Nafarroan, ordea, lege berria onartzen bada, batzuetan bai eta bertzetan ez» dio Begoña Ezkurra Narbarte botikariak.

Gaur egun, Nafarroako botika guzikiak Osasunbidearekin kontzer-

tatuak daude. Legea onartuko balitz, berriz, bi botika mota izanen lirake: kontzertatuak eta kontzertatu gabeak. Malerreka eta Bertizaranako sei botika kontzertatuetatik, adibidez, bi bertzerik ez litzateke geldituko, Begoña Ezkurraren ustez: «herri tiki hauetan errezetetatik ateratzen duguna



Lege egitasmoaren aurkako kanpaina burutzen ari dira inguruko botiketan. Argazkia: Asier

kontzen badigute, ezin dugu aitzinera segi». Gainera, kontzertazioa urtetik urtera aldatuko

litzateke eta lege egitasmoan ez dira kontzertua emateko kriterioak azaltzen.

Maite PLAZA Leitzako botikaria

«Urtero botikaz aldatu behar badu, gaixoari ez zaio jarraipen egokia egiten»

LEGEA INDARREAN SARTUKO BALITZ ZER ALDATUKO LITZATEKE BOTIKETAN?

Lege honek botika gehiago irekitzen utziko luke, baina bi farmazia mota egon lirake: batzuk kontzertatuak deitzen zaizotenak eta besteak kontzertatu gabeak. Orain arte denak kontzertatuak dira. Bien arteko diferentzia hau da: kontzertatuak gizarte segurantzako errezetak banatzen dituztela eta besteak ez. EZ KONTZERTATUETAN ERREZETARIK GABE EROSTEN AHAL DA ORDUAN?

Gizarte Segurantzako errezetarik gabe, zure sakeletik ordaindu behar duzu dena, edo Diputazioko Segururekin... Errezetarik gabe saltzen ahal diren gauzak ere izanen dira, sendabelar dendak,

dermofarmaziakoak, dietetikakoak...

ORAINGO BOTIKA KONTZERTATUEN EGOERA ZERTAN ALDATUKO LITZATEKE?

Administrazioak 10 urtez kontzertatuak izaten segituko dugula esan digu orain gaudenei, baina kontzertatuak indibidualki negoziatuko direla dio, ez kolektiboki orain arte bezala. Orain kontzertazioa Kolegioaren bidez izaten da, hark banatzen du denendako. Hala ere ez dute zehaztu kontzertazioak banatzeko orduan zer irizpide erabiliko duten. HERRI HAUTAN ERAGINIK IZANEN DU LEGE HONEK?

Oraingoz beharbada ez da nabaritu, baina gerora ez da garantizatzen kontzertazio hori herri txiki guztietan iza-

nen denik. Oinarrizko Eskualdeetan minimo batzuk beteko direla bakarrik esaten dute. Dena den, ez badira kontzertatu herri txikiak farmaziak, nere ustez hiri aldera joanen dira, errexagoa baita hor parafarmazietatik bizitzea. Herriotan oinarrizko lau zona daude, eta batzutan herri asko sartzen dira: Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitza eta bere ingurua izanen lirake.

ZERBITZUAREN KALITATEAN ERAGINIK IZANEN DU LEGE BERRIAK?

Guk pentsatzen dugu txarrerako izanen dela, zeren ezin zaie gaixoei jarraipena egin urte bakoitzean kontzertazioaren arabera botika ezberdinetara joan behar badute. Gaixo batek farmazia bat aukeratzen badu hor segimendua egiten zaio, botikariak badaki zer medikamentu hartzen dituen, eta beste zeozer gauzen bila etortzen bada esaten ahal dio bateragarria den edo ez den. Baina urte bakoitzean toki desberdin batera joan behar badu...

ZURGINDEGIA
ZERRAILGINTZA



Jose Luis
PAGOLA
ETXEBESTE

636 172895 • BERA

bortziRUDI

BERA

FOTOKOPIAK (txuri beltzean)
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA

PAPERTEGIA
txuria, kolortutako, argisuntsuak
guzuzko materialak
budago materialak
etab.

ARGAZKI MUNTAIK

DISEINU GRAFIKOA
INPRINTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA

Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura,
papera, moketa eta sintasola.

948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

**ERREKALDE
ostatua**

Tfnoa: 948630259 - BERA

Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu!

Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

948630155
BERA

Bazkideen urteko kuota goitzea erabaki du Gure Txokoa Elkarteak

1993. urtetik honat batere aldatu gabe zeuden

ASIER GOGORTZA

Joan den apirilaren 7ko batzar orokorrean hartu zen erabaki hau Gure Txokoako ardura-dunen eta bertaratu ziren bazkideen artean. Izan ere, iaz lamotenean egin diren berrikuntzek teilatua eta gibelaldea moldatu, paretak txukundu, sarrerako malda egin... zulo handi xamarra utzi dute elkartearen diru poltsan, eta kuoten igoera honekin zulo hori berdintzea lortu nahi da.

Beraz, horrela aldatu dira bazkideen urteko kuotak: 13 urte arteko haurrak, 500etik 1.000 pezetara; 14tik 17 urte arteko gazteak, 1.000 pezetatik 2.000ra; 18tik 64 urte arteko bazkideak, 3.000tik 4.000ra; eta 65 urtetik goitikoak, azkenik, 1.000tik 2.000ra.

Urtero sasoi honetan egiten den asanblea horretan bertzelako gaiak ere izan ziren hizpide. Aurtan, berriz ere, sukalde eta ostatuan izan diren diru galerek eman dute zer errana. Edariak hartu eta ez ordaintzea, sukaldeko tresnak ebas-tea eta bertzte gisako kalteak ere ohikoak izaten dira herrian besta handiren bat ospatzen den aldiro. Jokabide hoiek al-



Bartzelonako Jorge Llorella argazkilariak Beran ateritako argazkiekin katalogoa eta bideoa argitaratuko dira

Maiatza bukaera aldera jarriko dira salgai "Zulo Beltza" izeneko liburuskak eta dokumental hauek. Llorellaren argazkietan Berako hainbat txoko agertuko dira, baina, goiko honetan ageri den bezala, nahiko ikuspegi bitxiarekin erretratatuak. Argazkilari honek, izan ere, aski teknika berezia erabiltzen du lanerako, argazki karreteen kutxekin egiten baititu bere argazki kamarak.

Argazkilariarekin elkarlanean Xabi Erkizia eta Mikel Etxegarai aritu dira, eta beraiek jarri diote musika dokumentalari. Berako Kultur Batzordearen babesarekin izan dute bi gazteek. Proiektu hau Bartzelona, Donostia, Bilbo eta Buenos Aires hiriburuetan jarriko omen da ikusgai.

datzeko ahalegin ttiki bat eskatu zuten Gure Txokoako arduradunek. Gainerakoan, 99an egindakoen balorazioak biltzen dituen urtekaria partitu da bazkideen artean, eta oraindik norbaitek etxean hartu ez badu, astelehen iluntzetan lamoteneatik pasatzen ahal da eske, jakinarazi digutenez.

Musika Eskolan aurre-matrikula egiteko epea zabalik da

Maiatzaren 31a bitarte izanen da astia 2000/2001 ikasturterako aurre-matrikulak egiteko. Haur, gazte eta helduentzako hainbat aukera eskaintzen du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak, solfeoaren osagarri diren hainbat

ikasgai, errate batera: musika eta mugimendua, lengoaia musikal, armonia, informatika musikal... Hoiez gain 20 instrumentu desberdin ikasteko modua ere badago, eta tresna hoiek lantzeko taldeak ere osatu dituzte.

Berako I. Mendi Astea antolatu du Agerra Mendi Taldeak

Maiatzaren 16tik 21era hitzaldi eta diapositiba sorta ederra antolatu dute mendizale hauek. Lehen egunean Pirinioei buruzko diapositiba emanaldia egingen du Jose Mari Arbelaitez. Bi-haramonean, Pello Añorga ipuin kontalaria ariko da arratsaldeko 6etatik aitzinera, eta ondotik Xabier Zubietak beratarak Gasherbrum II espedizio-ko diapositibak eskainiko ditu.

Ortzegunean Felipe Uriarte alpinista eza-gunak diapositiba emanaldia egingen du, eta solasaldiekin akautzeko ortziralean Izaskun Aburkoren Berako mendien historia izanen du mintzagai. Azken hau ezik hitzaldi guztiak Kultur Etxean egingen dira arratsaldeko 8etan.

Maiatzaren 21ean, igandearekin, Berako mendietan barna itzulixka bat egingen da eta eguerdiko 2etan bazkari batekin emanen zaio akabera Mendi Asteari.



LABE ZAR
948631076 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • 948630083 BERA

948 631462
Altzate 1 • BERA
Xirgil

LESKA

Bortzirietako musika taldeek bat egingen dute ikastolaren 25. urteurreneko emanaldian

Larunbat honetan izanen da saioa, arratsaldeko 7etatik aitzinera Plaza Zaharrean

AITOR AROTZENA

Tanturumairu Ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldien barrenean, larunbat honetan, maiatzak 6, arratsaldeko 7etatik aitzinera Bortzirietako musika taldeen emanaldia izanen da Plaza Zaharrean. Lesakako musika banda, akordeoi taldea, trikitixa taldea eta Tanturumairu dantza taldea ariko dira. Bera eta Lesakako abesbatzek eta txistulariek elkarrekin parte hartuko dute emanaldian.

Ekitaldia hasteko, aureskua eskainiko dute txistulari eta dantzariak. Ondotik, txistulariek eta abesbatzek, Marisol Perezen zuzendaritzapean, P. Olazaranen *Mendigoizaleak* kantua eskainiko dute. Akordeoilari txandan, Musika klasikoaren *Potpurria* joko dute, Xalbador Madariagak zuzenduta eta berak egindako moldaketarekin. Trikitilariak jotzen duten bitartean, *Fandangoa* eta *Arin-Arina* dantzatuko dute Tanturumairu taldekoek. Gero, Mikel Iriarterek zuzenduta, Musika Banda eta Abesbatzek Vicente Beobidoren *Rapsodia Vasca* eskainiko dute. Jone Elgorriagak zuzendutako tri-



Herriko abesbatzak Berakoarekin bat egingen du larunbatean plazan es-kainiko duen kontzertuan.

Artxibokoa

kitilari taldeak Kepa Junkeraren *Gaztelugatxe*ko *martxa* joko du. Gero, Gaizka Sarasolak zuzenduko ditu txistulariak, bibolinak, akordeolariak eta dantzariak, Pablo Sorozabalen *Maiteren* interpretazioan. Musika banda eta txistulariek Manuel Gainzaren *Biribilketa* joko dute, Mikel Iriarteren agindupean. Ekitaldiaren akabaila aldera, txistulariek, musika bandak, akordeolariak, abesbatzek eta dantzariak *Euskal musikaren gorespina* eskainiko dute. Begoña Rudik zuzenduko du doinu herriko hau, Eresbilen hitzekin eta Txomin Agi-

rregomezkortaren moldaketekin.

Akautzeko, abesbatza eta musika talde guzietatik batera, *Agur Jaunak* kantatuko dute, Mikel Iriarteren zuzendaritzapean.

VIII. Herri Lasterketa maiatzaren 28an

Maiatzaren 28an burutuko da Batzoki Elkartek, Nafarroako Rurral Kutzaren eta Lesakako Udalaren laguntzarekin, zortzigarren urtez antolatutako Herri Lasterketa. Proba goizeko 9,50etan hasiko da, ttikienekin eta eguerdiko 12,30etan abiatuko da lasterketa nagusia. Tartean, kategoria ez-

berdinetako neska-mutikoen lasterketak egingen dira, 2 kilometroko ohiko ibilbidearen barrena. Argibide gehiagorako 948 627522 edo 646 244371 telefonotara deitu (Julen).

Xuberoako ahotsak ortziralean Arranon

Ortziral honetan, maiatzak 5, Xuberoako ahotsak aditu ahal izanen dira gaueko 10etatik aitzinera Arrano elkartean. Xiberoko Botza Irratiaren aldeko kanpainaren barnean Ainhoa herak taldea eta Pascal Elixondoborde bakarlaria ariko dira. Ekitaldi honek Lesakako Udalaren laguntza du.

Personaia

Hogei urtez herriko apez-izandako Maximo hil zen

Apirilaren 19an hil zen Maximo Hernandorena, hogei urtez herriko apez-izandakoa. Biharamonean Lekunberri bere sorterrian egindako lur emate elizkizunera lesakarra auzitza joan zen beraien auzitegi agurra ematera eta Bazko Astelehenean egindako mezan jendez gainezka ageri zen San Martin eliza.

1955. urtean apez egin zutenetik Intza. Iruña. Irurtzun eta bertze zenbait herrietan izan zen, duela hogei urte Lesakara etorri zen arte. Elizan egindako lanaz gain, herriko elkarte eta talde ezberdinei eskaintako laguntza-gatik eta bere eskuzabal-tasunagatik gogoratua izanen da Maximo Hernandorena.



Maximo HERNANDORENA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • 948637518
LESKA

Lurrindenda
Estetika
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESKA

BITTIRIA
HARATEGIA
948 627555
Bittiria, 43 • LESKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

ETXALAR

Aduana-etxea eta inguruko lurra Udalak eskuratu ditu

Orain horrekin zer egin ikusi behar

PELLO APEZETXEA

Hondarrean, urtetako joan-etorrien ondorioz, Lizarietako aduana-etxea eta inguruko lur zatia Udalaren esku dago, Nafarroako Gobernuak otsailean hartutako akordioaren ondorioz. Denetara 4.375 metroko luze-zabalera duen lurra, karrikako lurren batekin trukatu nahiko luke Udalak. Karrikan, izan ere, ez baitu Herriak ia-ia lur mutur bat ere, edozein asmo betetzeko; aparkalekua, errate baterako.

Igerilekuetako zerbitzu arduradunak

Aurten inoiz baino

gehiagok eman du ize-na, igerilekuetako lana hartzeko: Hondarribiko Xabier Goya eta Jon Emazabelek, herriko Oihana Sanzberro eta Itziar Iriartek, eta Lesakako Aqua elkarteak, borts lesakarrek eta etxalartar batek osotua. Orain, guzien paperak begiratu, eta haien artean nor diren aukeragarrienak ikusi eta erabaki behar du Udalak.

Goseak hilarazitako behorren ixtorioa

Lau Herriak mendian, Etxalarrekin mugatzen duen Asketa ize-neko eremuan, goseak hilarazi omen du behor bat norbaitek. Zerrakuraz itxitako eta baz-



Ortziral Santuko Prozesioa

Oraindik ere mantentzen den Ortziral Santuko prozesioa zati txiki bat. Argazkia: Fidel Cruz

karrik gabeko lur zatian sartu zituen bi behor, eta bertan aste batez-edo iduki, artzai bat ohartu zen arte. Honek ireki zien ataka, baina bat hilda zegoen orduko, eta bertzea aski hondatua. Behorrek mendira mar txoaren 25ean Olazarko Jabierrek eraman zituen, eta berak kontatu digu gertaera eta salatu nahi du. «Nola sufriarazten ahalzaio animalari horrela?», zioen Jabierrek. «Gainera, jabeari kal-

te egiteaz gain, egin duenarentzat inolako probetxurik ez baita».

1999ko kontuak eta 2000ko aitzinkontuak

Joan den urteko kontuetan, 91 milioi eta erdiko sarrerak izan ziren, eta 88 milioi eta erdiko gastuak. Izakinak edo gelditu zen dirua: 3 milioi pezeta. Aurtengorako, 135 milioi pezeta gastatzea onartu du Udalak, sarrerak ere neurri berekoak izanen

direlakoan. Orduan, bada, urtearen hondarrean zorrik gabe gelditzeko asmotan.

Posta zerbitzuarena bere horretan

Bere horretan, hau da, murriztua segitzen du posta zerbitzuak, bai baserriar eta bai karrikerentzat. Udalak Korreoko buruekin biltzea galdetuagatik, oraindik ez dute, momentu honetan, deus erantzun.

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

948627573 • LESAKA



ZALAIN
JATETXEA

EGUNERO MENDIA ETA KALITA

Zalain Auzoa

948631106

BERA

Boda eta banketeak ematen dira



HERRIKO
OSTATUA

Jatetxea

948635290

ETXALAR

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat

pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

ETXALAR



Pinturak
eta
barnizak

LESAKA

686 805435

948 637556

Manuel Zamorano



HARITZPE
JATETXEA

948635235

948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK



Egunero idekia. Asteazkenetan atsedeen eguna.

KAXULA

- Sukaldeko
tresnak

- Opariak

- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA

948 63 75 58

KOXKILA
OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

IGANTZI

Igerilekuaren zainketaz arduratzeko eskaintzak egiteko epea ireki da

Bertzalde, Joxe Mari Goia txirrindulariak hagitz ongi hasi du denboraldia

OSKAR TXOPERENA

Ez du eguraldiak horrelakorik erakutsi azken bolada honetan, baina, uda hurbiltzen ari zaigunaren seinale da aipatzera goazen berria, Herriko Etxeak atera baitu dagoeneko igerilekua eta bere inguruar zainketarako deialdia. Deialdiak dioenaren arabera, maiatzaren 12ko eguerdiko ordu bitarteko epea izanen dute igerilekuaren mantentimendu, garbiketa eta funtzionamendu lanetan ari nahi dutenek eskeintzak Herriko Etxean aurkezteko. Hasiera batean 700.000 pezetako eskeintza (BEZ barne) egin zaie interesatuei, denboral-

di osorako, hau da, ekainaren 15etik irailaren 15a bitartean. Azkeneko urtetan ez bezala, igerilekuaren inguruaz (beldarra, hesiak, etab..) ere arduratu beharko dute lana hartzen dutenek.

Dantzari ttikiak Elizondora

Heldu den maiatzaren 7an *Hamabi ordu euskaraz* besta ospatu da Elizondon. Euskal besta izanik, dantzariak ere izan behar egitarauaren barrenean, eta aurtengoan Igantzikoak ere parte hartzera gonbidatuak daude. Guzira berrehun dantzaritik goiti izanen den ekitaldian, hemezortziren bat izanen dira igantziarrak, tarteko taldekoak, hain

zuzen ere. Horrelako bestetan ordu zehatzik ematerik ez badago ere, igantziarren saioa 5,30tik aitzinera izanen dela erran digute.

Joxe Mari Goia bikain hasi da

Aurtengo neguko prestaketa serioago hartu izanak mesede handia egin dio Joxe Mari Goia txirrindulari igantziarrari. Martxoaren 19 eta 20an Sunbillaan jokitutako proba irabaziz hasi zuen denboraldia, etsai gogorren aurka gainera. Bertan, larunbateko proba irabazi zuen, David Fernandez aitzinetik bakarrik helmugaratuz. Igandeko kro-



Joxe Mari Goia, orain bi urte Igantziko proban hartutako sariarekin.

Argazkia: Oskar Txoperena

noigoeran laugarren postua lortuaz sailkapen orokorra ere bereganatu zuen. Apirilaren 9an, berriz, Obanos-en, elite mailako Nafarroako txapelketaren bigarren postua eskuratu zuen, David Fernandez Otsagitarren ondotik, juniorretan Patxi Irazo-kik egin zuen bezalaxe.

Azkenik, apirilaren 24an laugarren sailkatu zen Lemoizen jokitutako Euskadiko Irekiaren proba batean, Euskal Herrian jokatz den lasterketa nagusian, hain zuzen ere. Momentuz seigarren postuan dago sailkapen orokorrean eta, ilusio handiarekin goiti begira.



MARTIKO
Gure baserrietako
produktuak

☎ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantentimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzi Benta • ☎ 948 627572 • Faxe: 948 637508

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

Jose Canabal
elektrizista

☎ 948 637541
☎ 666 575899
IGANTZI



LESKA

ARANTZA

Elizkizunak eta oporretako harat-honata nagusitu da Aste Santuan

Herri Kirol Jolasetan txapeldun suertatu dira haurrak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Eguraldi politarekin hasi zen Aste Santu honetan, urtero bezala elizkizun ederrak ikusteko parada izan dugu eta prozesioak ere ibili ziren herrianbarna. Bertze batzuk, berriz, egun hauek oporretan joateko aprobetxatu dituzte. Herritarrak kanpora joaten ziren bitartean, honat kanpotarrak etorri dira herria eta inguruko mendiak ezagutze-
ra. Horrela, herriko aterpea eta landa etxeak bete egin dira egun haue-
tan.

Ametxoko eta Unanueko plantazioak garbituko dira udan

Nafarroako Gobernu-
nuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak baimena eman

du oihanberritutako eremu batzuetan uda partean garbiketa lanak egiteko. Landareak behar bezala handitzeko, inguruan dituzten belar eta sasiak kenduko dira uztailearen 15a baino lehen akautu behar diren lanetan. Arantzako kasuan, Ametxoko eta Unanue inguruetan eginen dira garbiketa lanak, 3.850.000 pezeta-
ko inbertsioarekin.

Herri Kirol Jolasetan haurrak txapeldun

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, apirilaren 16an burutu zen Larraintzarren Nafarroako Herri Kirol Jolasen finala. Herriko neska-
mutikoak proba konbinatuan finalera ailegatu ziren, haur nahiz kadete mailan. Haurrek txapela eskuratu zuten, nagusitasun osoz. Zazpi minutu terdi behar izan

zituzten proba guzia burutzeko, bigarren izan zen Fortox taldeak baino hamabi segundu guttiago. Bertze bi taldeak dexente denbora gehiago behar izan zuten.


Kadetetan ez ziren hain fin ibili arantzarrak, hirugarren postuan sailkatu baitziren. Andra Mari taldea izan zen txapeldun, 9' 19" rekin. Lakuntza izan zen bigarren, zortzi segundutara. Arantzarek 10 minutu eta segundu bat behar izan zuten lana akautzeko eta laugarren izan zen Artizar taldeak 10 minutu eta 39 segundu.

Aberri Eguna

Udalbiltza erakundeak luzatutako deialdiari erantzunez, apirilaren 23an Aberri Eguna ospatzen zela eta, agerraldia egin zen Herriko Etxearen aitzinean.



Eguerdiko 12etan zen hitzordua eta, alkatea buru zela, zenbait herritar eta kanpotar egon ziren plazan pankarta batekin.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
☎ 948 630 054
Alzateko Plaza, 2
BERA

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

LINDDURRENBORDA
sagardotegia
• 100 lagunendako jantokia
• Sagardotegiko menua
• Gosariak eta bokadilloak
Ardoa ere kupeletik ematen da
Nabaz Auzoa • LESAKA
☎ 948 637212

LEGARZA
Legarrea, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

Alberto RETEGI
abokatua
Alzate 17
BERA
☎ 948 630 763

BERTIZ

Inguruko landareei buruzko liburua karrikaratu da

Aurkidi elkarteak argitaratu du Eugenio Perez Marinen lana

TTIPI-TTAPA

Aurkidi elkarteak eta Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak «*La vegetación existente en el parque natural del Señorío de Bertiz y los valles cantábricos navarros*» izeneko liburua argitaratu dute. Inguru honetako ekosistema ezberdinetan aurkitzen ahal diren 575 landare ezberdinei buruzko informazioa zehatza dakar Eugenio Perez Marinek idatzitako liburua. Berak azaldu duenez, hamar urtez datuak bildu ondoren sortu da liburua. Aurkidi 2.000 ale argitaratu ditu. Baztan, Malerreka

eta Bortzirietan banatzeaz gain, Bertizko Interpretazio Zentruan eta Turismo Bulegoetan ere jarriko dute salgai, 1.000 pezetan. Liburua erosketen interes duenak Aurkidi elkartera ere jotzen ahal du zuzenean, Doneztebeko Merkatarien karrikaren seigarrenera edo 608 617324 telefonora deitu.

Lana hiru arlo nagusitan banatzen da eta aipatutako landare, onddo eta goroldio mota gehienak 149 argazkietan bildzen dira. 32 mapa ere eskaintzen dira liburuen 122 orrialdeetan. Momentuz, gaztelaraz bakarrik argitaratu bada ere, «*laster euskara itzuliko dutela*» erran dute argitaratzaileak.



Bertizko Merkatal Elkarteko erosketen bonoen irabazleak
Bertizko Merkatal Elkartek «Hemen bizi, hemen erosi» kanpainan zozketatutako 50.000 pezetako hiru erosketen bonoen saridunak: Lesakako Maite Iriarte, Etxalarko Jabier Urmeneta eta Elizondoko Xabier Hualde. Eskuinean, Javier Pina Merkatal Elkarteko lehendakaria. Argazkia: Mena

Bidasoako III. Zinemaldiko kartel lehiaketa

Bertizko Turismo Partzuergoak, Hendaia eta Hondarribiako Udalen laguntzarekin Bidasoako Filme Laburren III. Zinemaldia iragarriko duen kartela argitaratu eman nahi du, eta horretarako lehiaketa deia egin du. Irabazten duen lanak Zinemaldiaren kartelan eta esku-

ko programan agertuko da. Lanak maiatzaren 30eko orduiak baino lehen aurkeztu behar dira Bertizko Partzuergo Turistikoan, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz. Kartelaren neurria, 50x40 zentimetrokoa izan behar da gehienez eta derrigorrez hau agertu behar da: III Certamen Internacional de Cortometrajes del País del Bidasoa /

Bidasoako Filme Laburren III Zinemaldia. Del 4 al 16 de Septiembre de 2000/ 2000ko irailaren 4tik 16ra Bera, Doneztebe, Hondarribia, Hendaia.

Sari nagusia 50.000 pezetakoa da eta Partzuergoaren esku geldituko da. Gainerako lanekin erakusketa bat egin ahal izanen du Partzuergoak, baina lanak urrian itzuliko zaizkie egileei.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Udaberri eta udarako azken nobedadeak gizon-emakume eta haurrendako

Parrokia 17 • **DONEZTEBE**
Tel. eta Faxa: 948 450289
e-posta: costiz@teleline.es

 MALERREKA

Jaunarena eta Etxeberria haserre Urrezko Aizkoratik kanpo gelditu ondotik

Euskal Herriko finalean aritu ziren arren, antolatzaileek ez dituzte kontuan hartu

Sunbillako Felix Etxeberriak eta Leitza bizi den Antonio Jaunarena zubietarrak beraien arrenkura azaldu dute, aurtengo Urrezko Aizkora txapelketarako gonbidapenik jaso gabe gelditu ondotik. Besagaine antolatutako txapelketan, Euskal Herriko hamaka aizkolarari onenak ari omen dira, baina Euskal Herriko txapelketan bosgarren eta seigarren izan ziren Etxeberria eta Jaunarena ez dituzte hartu. Antolatzaileen erranetan, gainera, bi aizkolariek nahi

ez zutelako ez dute parte hartu txapelketan: «*Gonbidatuak izan dira, baina sasoi txarrean zeudelako ezetz errandigute*». Adierazpen hauek haserre sortu die Etxeberria eta Jaunarenari, «*gezurra delako*» eta biek entrenatzen ari baitziren gonbidatuko zituztela pentsatuz. «*Antolatzaileek ematen dituzte gonbidapenak, eurek ikusiko dute zergatik ez gaituzten gonbidatu, baina amorrua sentitu dugu, Ez dugu uste hamaka onenak aritu direnik*».



Etxeberria eta Jaunarenak ezin izan dute Urrezko Aizkoran parte hartu.



 SUNBILLA

Aurten ere ez da Ortzirale Santuko prozesiorik egin

Jendu ugari ibili da Sunbillan Aste Santuan. Landa etxeak bete egin dira eta kanpinan jende dexente ibili da. Honekin batera, Aste Santuko elizkizunak ere egin dira. Ortzirale Santuko prozesioa, eguraldi txarra zela medio, ez zen egin.

Herriko Etxearen moldaketa

Dagoeneko hasiak dira Herriko Etxearen moldatzeko lanak. Barnetik hasi dira moldatzen eta aitzineko aleetan aipatu bezala, lanean ari diren bitartean beheko eskolako bigarren pisuak eginen du Udaletxe funtzioa eta bertan egonen da idazkaritza.

Igerilekua udan hartzeko lehiaketa

Udal igerilekuan uda honetan lanean aritzeko lehiaketa deia zabaldu du Herriko Etxeak. Proposamenak udal idazkaritzan aurkeztu behar dira maiatzaren 15a baino lehen. Baldintzak eta lehiaketaren oinarriak ere bertan daude.

Bertzalde, Babes Ofizialeko etxeak erakitzeko proiektua martxan dago. Informazio gehiago Herriko Etxean.

16 milioi terdiko aurrekontua Malerrekan eta Bertizaranan oihanberritutako eremuetan udan garbitze lanak egiteko

Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman du oihanberritutako eremu batzuetan uda partean garbiketarako lanak egiteko. Landa-eremuek behar bezala hantitzeko, inguruan dituzten belar eta sasiak kenduko dira uztailearen 15a baino lehen akitu

tu behar diren lanetan. Malerreka eta Bertizaranako eremuetan, 16 milioi terdiko aurrekontua izanen da.

Donamarian, Golbai inguruan eginen dira garbiketarako lanak, 630.344 pezetako aurrekontuarekin; Doneztebeko Aldapaundin 2,29 milioi pezetako aurrekontua izanen da; Elgorriagako Ameztu

inguruan 669.900 pezetakoa; Eratsungo Zumarrestan 765.600 pezetakoa; Iturengo Ontzalekun 950.120 pezetakoa; Bidasoako Berroarango Junta barranean dauden zortzi eremu garbitzeko 6,90 milioi pezetako aurrekontua da; Beintza-Labiengo Lotzabian inguruan, 529.183 pezetakoa; Legasako Aran-

solon 623.913 pezetakoa; Narbarteko Otalzun, milioi batekoa; Oizko Irizabalen 1,11 milioikoa eta Zubietako Alkasuri, Lotzabian eta Txitxillon, 2,06 milioikoa.

Ezkurrako hiru eremuetan ekainaren 15a baino lehen akitu beharreko lanak, berriz, 3,35 milioi pezetako aurrekontua izanen dute.

FUNERARIA ZERBITZUAK **Lesaka-Donztebe**



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

**Udaberri eta udako
lentzeria eta
bainujantzien
kolekzio berria**

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

99ko
Errenta Aitorpena
egiteko Zerbitzua
EUSKADIKO KUTXA




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

99ko
Errenta Aitorpena
egiteko zerbitzua

EUSKADIKO KUTXA

“Nire Errenta Aitorpena Euskadiko Kutxaren esku uzten dut, nire egoera fiskala ezagutzen dutelako eta zergatan aurrezten laguntzen didatelako”.

Servicio
Confeción
Renta 99
CAJA LABORAL



1999KO KANPAINA SUSTAPENA

Zure errenta aitorpena gure bidez egiten baduzu, eta pentsio-plana edo etxebizitza-kontua kontratatzen baduzu, lehenengo 5.000 pezeten balioa duen txartel bat emango dizugu.

5.000 PTA.KO BALIOA DU
Pentsio-Planaren kontratazioa
Gutxieneko zenbatekoa 100.000 pta.
Hileko kuotak: 10.000 pta.

5.000 PTA.KO BALIOA DU
Etxebizitza-kontuaren kontratazioa
Gutxieneko zenbatekoa 100.000 pta.
Ondorengo ekarpenak aukeran

(Pentsio-planak edo etxebizitza-kontuak irekitzearen sustapena Doneztebe, Lesaka, Bera eta Leitzako sukurtsaletako bezeroentzat bakarrik da)

BERA
948 630451

LESAKA
948 637738

DONEZTEBE
948 450395

LEITZA
948 510350

LEITZA

ARESO

Plazaola Natur Bidearen aurkezpena egingen da zineman maiatzaren 12an

Ibai Bengoetxea garaile Irun eta Intxaurrendoko pilota txapelketetan

JOSEBA AZPIROZ

Plazaola Partzuergo Turistikoa, Plazaola Natur Bidearen lehenengo atalari hasiera emateko, Leitza, Lekunberri eta Irurtzunen egingen diren aste bateko jardunaldiak antolatu ditu. Leitza, maiatzaren 12an, arratsaldeko 7etan, Plazaola Natur Bidearen aurkezpena izanen da zineman. Bertan Partzuergoko, Leitza eta Andoaingo Udaleko, Nafarroako Gobernu ingurumen saileko ordezkari eta teknikoei parte hartuko dute. Bertan, bigarren fasearen proiektuaren xehetasunak argituko dira. Ekitaldiaren ondotik merendua zerbitzatuko dute. Bukatzeko, zezen suzkoa izanen da. Alkatea eta Eleni Zabaleta zinegotzia, Plazaola Partzuergo Turistikoko beste ordezkari batzuekin batera, Espainiako Gobernu Ingurumen Zuzendari Nagusiarekin bildu ziren martxoan Madril, Uitzitik Gipuzkoako mugara trenbidea bide berdea bihurtzeko behar diren 325 milioiak eskatzeko (Lekunberri Uitzira berritzeko kostua, Estatuko Gobernuak ordaindu zuen osorik). Bestalde, maiatzaren 14an, Plazaola-Lekunberri ibilaldia egingen da.



Aberri Egun bateratua

Ehun eta berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren Udalbiltzak deituriko Aberri Egun bateratua ospatzeko. Goizeko 12etan manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar. Ondoren, Jaione Astibia eta Juan Oronozek (EH eta Earen ordezkariak), Udalbiltzaren agiria irakurri aurretik, dantzariak aureskua dantzatu zuten, Ikurriña omenduz. Bukatzeko salda eta pintxoak banatu zitzaion bertaratutako guztiei.

Argazkia: Dabid Anaut

Pilota kontuak
15 urteko Ibai Bengoetxea leitzarrek eta

hemen entrenatzen duen Aldazko Oier Astizek Irungo eta Intxaurrendoko pilota txapelketak irabazi dituzte. Ibai, Zizurko buruz buruko finalera ere ailegatu zen, baina galdu egin zuen.

Sutarako egurra

Sutarako egur lotea eskatzeko epea maiatzaren 31ren eguerdiko

ordu bata artekoa da. Gaitz egurra eskatzen dutenak ere, epe berdina dute. Gaitz egurra markatzeko ez da nahikoa izan ezintasunaren ziurtagiria aurkeztea. Benetako ezintasuna dutenei besterik ez zaie markatuko gaitz egurra. Egurraren truke, Auzolanean egun bat egin beharko da.

Paki Arregi UPVko Gipuzkoako Kanpuseko errektoreorde izendatu dute

Paki Arregi aresoarra Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordea izendatu dute martxoaren 20an. Elebitasunari buruzko doktoretza tesia egin zuen eta orain Hezkuntza Soziologiako katedraduna da. Nafar eta euskaltzaleztasun jotzen du bere burua eta Euskaltzaindiako kide da. Euskarari buruzko ikerketak egin ditu eta Donostian bizi den arren, harreman handia du herriarekin.

Aberri Eguna

Pazko Eguneko meza ondoren Aberri Eguna ospatu zuten herritar batzuek. Ikurriñari omenaldia eta agurra eskaini eta dantzariak aureskua dantzatu ondotik, herrian musikaren laguntzaz ikurriña eraman zuten eta bukatzeko, bazkaria izan zuten.

Guraso Elkarteak

Guraso Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Lau eguneko xake ikastaroa, helduentzako igeriketa ikastaroa eta bideo emanaldia, «Asterix eta Obelix» filmarekin.

TOLDOS BAZTAN

Presta zaitez udarako!

- Eguzkitik babesteko toldoak
- Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
- Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
- Errotulazioa

948 63 10 03 • 629 01 59 23

Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERA KO ZALAIN AUZOTIK

SALMENTA

ALOKAIRUA

KONPONKETA

ANTOJOS

boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin eginen)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

BAZTAN



Zahar Etxeko mus, brisca eta seien txapelketetan parte hartu dutenak.

Foto Zaldia

Karta txapelketen ondotik Kultur Astea antolatu du Zahar Etxeak

Maiatzaren 11n ateraldia egingen dute Aralarko San Migelera

TTIPI-TTAPA

Martxoan jokatu dituzte Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar-Etxeko karta txapelketak. Guzira 50 bikote aritu dira, tartean, adinekoak, Zahar Etxeko langileak, mojak eta herritarrak. Musean Paulina Mindegia eta Jose Fermin Lertxundi suertatu ziren txapel-dun, finalean Pablo Perez eta Martin Goikoetxeari irabazi ondotik. Juan Bautista Iribarren eta Simon Urriza izan ziren hirugarren eta Bayonés eta Gabasa laugarren. Seien txapelketan Maria Etxeberria eta

Paulina Mindegia izan ziren irabazle, finalean Sor Luciana eta M^a Camino Aranbururi irabazita. Brisca txapelketan, azkenik, Dolores Osés eta Maria Etxeberria izan ziren garaile. Hemen ere, M^a Camino Aranburu eta Sor Luciana ailegatu ziren finalera. Martxoaren azken egunean banatu ziren sariak eta gero berendutafaria egin zuten.

KULTUR ASTEA
MAIATZAREN 8TIK 12RA

Karta jokuekin ez da akituko, ordea, Francisco Joaquin Iriarte Erresistentziak antolatutako ekitaldien eskaintza.

Izan ere, Kultur Astea izanen da maiatzaren 8tik 12ra.

Asteleheneko egitaraua goizeko 11etako mezarekin hasiko da. Meza ondotik, edertasuna eta estetika aholkuei buruzko solasaldia emanen du Beatriz Altzugurennek. Bazkalondan, Otsondora aterako dira.

Asteartean, Meza eta gero, «Pilotarien istorioak» izeneko solasaldia eskainiko du Carlos Zuloagak. Arratsaldean, Baztango umeek aktuzioa egingen dute erresistentzian.

Asteazken goizeko Meza ondotik, Nafarroako

bailara hezeei buruzko solasaldia emanen du Jon Gurutzagak. Arratsaldean joku herrikoia izanen dira.

Ortzegunean Aralarko San Migelera egun osoarako ateraldia egingen dute, Lekunberriko Ayestaran hotelean bazkalduz.

Ortzilerian, azkenik, Meza ondotik, «Bolandresa Erresistentzian» solasaldia eskainiko du Ana Cariñena erizainak. Kultur Astea akitzeko, arratsaldeko 4,30etan etxeko besta hasiko da. Akordeoiaren soinuak adituz merendu ederra jateko modua izanen dute Zahar Etxekoek.

flash

❖ Oihanberritu diren eremuak garbitzeko 64 milioi terdi Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman du oihanberritutako eremu batzuetan uda partean garbiketa lanak egiteko. Landareak behar bezala handitzeko, inguruan dituzten belar eta sasiak kenduko dira uztailearen 15a baino lehen akitu behar diren lanetan. Baztanen 64,54 milioi pezetako inbertsioa egingen da 26 eremuetan garbitze lan horiek egiteko.

❖ Bide seinaleak Belaten Belateko zuloak egin zituztenetik aurriztan agertutako arrenkura azaldu zuen Francisco Javier Etxenike Zigako alkateak azkeneko Junta Generalean: «Ez Berroeta, ez Aniz ezta Ziga ere, ez gara seinaletan inon agertzen». Kontuan hartu behar da, Baztango begiralekua dela ballean gehien bisititzen den lekua eta hori ere ez da seinaletan ageri. Zoziaian ere seinaleak falta dira eta Elizalde baserrira sartzeko hiru karril gurutzatu behar dira. Bide Zerbitzuari egoera moldatzea eskatu zaio berriz ere.

MENDI
OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO


BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176


JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE
Jatetxea


AMAIUR • ☎ 948453060

BAZTAN

Hamabi Ordu Eskuaraz maiatzaren 7an ospatuko da

Amaiurko borroka izanen da antzeslanaren gaia

TTIPI-TTAPA

Hamabi Ordu Eskuaraz besta igande honean, maiatzaren 7an, ospatuko da aurten. Hala ere, aitzinetik zenbait ekitaldi ere antolatu dira. Maiatzaren 7ra arte zabalik dago Elizondoko Arizkunenean Euskal Herriko aintzinako jantzien erakusketa. Iñaki Iruretagoienak egin du jantzien bilduma. Arratsaldeko 5etatik 9etara irekiak daude Kultur Etxeko erakusketa gelako ateak.

Igandeko ekitaldi nagusia baino lehen, larunbatean, Hamabi Ordu Lasterka egiteko aukera izanen da Lekarozko futbol zelaia in-guruan. Goizeko 7etan hasi eta arratseko 7ak arte, eskualdeko korrikalariak lasterka arituko dira eta nahi duten guziek laguntzen ahal diete.

Egun haundia, halerre, igandea izanen da. Jendea ernatzeko argi soinuak joko dituzte herri guzietan. Horretan musika talde aunitzek hartuko dute parte: Ustaritz, Xalbador, Jarauta 69 eta Jarauta 86 txarangak; Iruña, Burlata, Etxarri Aranatz, Zangotza eta Baigorriko gaiteroak; Asun Urrutiaren eskolako eta Baztango Musika eskolako akordeolariak, Baztango txistulariak eta Baztango trikitilariak, bertzeak bertze.

Eguerdialdera, herri antzerkiaren txanda izanen da Elizondon. Aurten, Amaiurko gatazkari buruzko antzezlan eskainiko da. Antzezlan akitutakoan, zikiro-jatea izanen da Merkatuzelaian.

Arratsaldeko 5ak aldera hasiko da dantza jaialdia, Baztan, Doneztebe, Baigorri eta Igan-



Bosgarren aldiz ospatzen den Hamabi Ordu Eskuaraz bestak bi ekitaldi nagusi izanen ditu: eguerdiko antzezlan eta arratsaldeko dantza saioa.

Hamabi Ordu Eskuaraz

tziko dantzarien parte-hartzearekin. Gainera, musikariak eta bertso-lariak ere izanen dira.

Hiru helburu nagusi

ditu Hamabi Ordu Eskuaraz-ek: Baztanen euskararen erabilpena bultzatzea, gure nortasuna indartzea eta ba-

llean lehenagokoak diren ohiturak, bizimodua, pertsonaiak eta gertakariak ezagutzera ematea.


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA


VIRGILIO
OINETAKOAK

1922an fundatutako etxea

Familia osoa jazen dugu edozein garai eta egoeratan

☎ 948 580279 • 948 580209
Santiago 32 • ELIZONDO

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

EUSKARA

Dantxarinea eta Zugarramurdi arteko errepidea ideki da

Jon Arretxe idazlea eskolako haurrekin izan zen

MARGARI ETA KORO

Aste Sainduan etor-tzen diren bisitari pila errezibitzeko justu-justu edeki ahal izan da Dantxarinea eta Zugarramurdi elkartzan dituen 4 kilometroko errepide zatia. Ordurakoz hamabortz egun edekia baldin bazen ere, ez zegoen oraindik dena bre-aztatua eta arriskutsua zegoen. Alde batetik hartu duen zabaltasunagatik eta bertze alde-tik kendu dituzten bi-rundagatik bertze ka-rretera bat dela ematen du. Arras finitzeko oraindik hilabete batzuk falta badire ere, aban-taila haundia da Dantxarineatik zuzen ibili ahal izatea, Leorlas auzotik buelta eman beharrik gabe (nahikoa sofritu dute bai gidariekin baita Leorlasko biztanleek ere...).



Jon Arretxe idazleak bere liburu bati buruzko argibideak eman zizkien eskolako neska-mutiko handienei. Gainera, bere bidai bati buruzko filminak ekarri zituen.

Jon Arretxe idazlea eskolan izan zen

Aitzineko egun ho-rietan ekitaldi berezi bat izan zuten eskolako hau-rrak: Jon Arretxe idaz-learen bisita. Ekitaldi hau liburuak nola egi-ten ziren jakiteko eta idazle bat ezagutzeko antolatua zen. Horreta-rako aintzinetik ikasle-

ek idazle honen liburu bat irakurria zuten («Harresi Handirantz»), bai-ta horri buruzko lantxo bat egina ere. Irakurri-tako liburuaren gaia bi-dai bat da, idazleak be-rak egindako bidaia, hain zuzen. Liburuari buruz solasteaz gain, us-tekabea hartu zuten nes-ka-mutikoei, Jon Arre-

txek bidai horretan egin zituen filminak ekarri eta ikusteko aukera eman baitzuen.

Eta hori dena xehe-ki kontatzen DBH-1, DBH-2 eta seigarren mailako ikasleek idaz-ki bat egin dute. Irakurri ezazue TTIPI-TTAPA ho-netako eskutitzen saile-an (7. orria).

Herri Urrats maiatzaren 14an ospatuko da Senperen

Heldu den igande-an, maiatzaren 14an, Herri Urrats ospatuko da hamazazpigarren aldikotz. Seaskak antolatutako ekitaldien kariatarat milaka eta milaka euskaltzale es-pero dira Senpereko aintzira inguruan. Bezperatik Senpereko bidea hartzen dute-nentzat Saran Gaupasa antolatu du Gaztetxe-ak. Arratseko 8etatik goiti, txaranga, gaiteroak eta trikitilariak ibiliko dire herrian bar-na. Ondotik, Baionako eta Hendaia-ko bertsu eskolako ikasleek bertsu batzuk ematen di-tuzte plazan. Segitze-ko, kontzertuaren al-di izanen da, lehenik herriko Saiberri talde-arekin. Gero, Orereta-ko Kashbad taldeak jo-ko du, bere hirugarren dizkako doinuak es-kainiz, eta horien on-dotik Dut taldeak be-re azken laneko kan-tuak aurkeztuko diz-kigu lehen aldikotz ipar Euskal Herrian. Gauaren bururatzeko, dantzatzeko parada ukanen dugu Ekintza taldeari esker. Sartzea 30 liberetan finkatua da.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- Zurich Aseguruak
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN

- ✦ Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- ✦ Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- ✦ Tarinak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- ✦ Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • 948 580 645

ARGIBEL OPTIKA

948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO



- Aukera zabala
- ✦ Anteojoak
 - ✦ Lentillak
 - ✦ Audifonoak
 - ✦ Errebisioak

 SARA

Idazleen Biltzar jendetsua izan da aurtengoa

Mila presuna baino gehiago pasatu zen kiroldegitik

ANA MARI ETA FRED

Arrakasta haundiz iragan da Bazko astelehenera iragan XVII. Idazleen Biltzarra. Mila presuna baino gehiago pasatu omen dira Sarako kiroldegitik. Bai Turismo Bulegoko arduradunak, hala nola Daniel Laplacette eta Jean-Michel Garat, bai eta Euskal Kultur Erakundeko Daniel Landart ere, izigarri pozik agertu ziren eginiko lanarekin eta azpimarratu dute 60 bat liburu berri agertu direla. Ez omen da sekulan hoinbertze liburu plazaratu ipar Euskal Herrian!

Bertzalde, Biltzarren kari, Junes Casenave-Harigile Xiberuako Altzai herriko erretora,

eta Jacques Blot medikua omendu dituzte, egin duten lanarentzat. Aldiz, arratseko mintzaldiak uste baino jende gutiago bildu du. Alta, biziki gai interesgarria zen, Mixel Itzainak Mixel Labegeri zenak egin funtsezko lana, eta bereziki egin dituen kantuak trebeki aipatu baiditu Herriko Etxeko gelan.

Plekako pala txapelketa

Apirilaren 15ean, larunbatarekin burutu zen Pleka trinketeko pala txapelketa. Aurtengoa IV. txapelketa izanik, berritasun gisa neska multzo bat antolatzea izan da. Denetara 109 bikote (hamar neskenak) aritu dira lehian,



Ipar Euskal Herrian argitaratutako hirutan hogeitaz liburu berri azaldu ziren Euskal Herriko Idazleen Biltzarren.

bortz multzotan banaturik. Nesketan Indaburu eta Arribillaga garaile ateri ziren Goietxe eta Behotegi bikoteari. Lehen mailan, Bergerot eta Ameztoti garaile. 2. mailan: A multzoan Halzuet eta Etxeberri; B multzoan Irigarai eta Lavie. 3. mailan Elizeri eta Zumeaga. Pilotazale gehienek zikiro jatean ere parte hartu zuten, erakutsiz bai kirolzaleak direla, baita bestazaleak ere! Esku huskako xoko lehiaketa apirilaren 30ean hasi da.

Mus txapelketa

Bazko Astelehenez, Luhusoko trinketean, Frantziako mus txapelketaren azken eguna iragan zen. Denetara 40 bikote hartu zuen parte; 4 emazte bikote, 4 gazte bikote eta 32 gizasemeenak. Baigorriko bikote batek irabazi zuen lehia, Portugalera bidaiaria eta Munduko txapelketarako baimena lortuz. Saratik ordezkariak bagenituen, nahiz eta finalerako postua ez gainditu: Isabelle Behotegi eta Kattin Goietxe.

Sinatzaile berriak

Bazko Astelehena baliatuz, herriko presoen sustengu plataformak mahaina atxiki zuen plazaratzen sinadurak biltzeko. 60 sinatzaile berri bildu ziren eta kontent ateri ziren. Halere, oroitarazi nahi dute herritar gehienek ez dutela izenpetu eta oraindikan nahi duenak igortzen ahal duela bere papera. Bertzalde, ez aiantzi ondo hitzordua: Maiatzaren 5ean, ortzirala, 7etan Herriko Etxearen aitzinean elgarretaratzea.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

 (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larri azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

HERRIKO ETXKO EDANTECIA



MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tel. 35 53 54 25 19



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa •  948 580 562 IRURITA



PIKABEA

Molinero drogerian galdetu **pinturak**

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 •  948 630240 - 948 631495 • BERA

EZKONTZAK

Jose Mezkiritz Cincambre eta **Lourdes Orube Mendia**, Arizkun eta Donostia-koa, otsailaren 16an.

Jose Miguel Azkarraga Zubiri eta **Mari Cruz Mendiburu Bidart**, Azpil-kuetakoak, apirilaren 15ean.

Angel Manuel Romero Correa eta **Cristina Garcia de la Hoz**, Etxalar eta Bilbokoa, Beran, apirilaren 15ean.

Eric Barrenetxe eta **Sylvie Sathicq**, Sarakoak, apirilaren 22an.

Juan Maria Mindegia Mitxeo eta **Ana Isabel Alvarez Goñi**, Oitz eta Irungoa, otsailaren 26an.

JAIO TZAK

Alazne Oskaritz Goñi, Lekarozkoa, apirilaren 9an.

Beñat Oskaritz Goñi, Lekarozkoa, apirilaren 9an.

Ierai de la Cruz Arburua, Etxalarkoa, otsailaren 28an.

Aritz Iratzoki Goienetxe, Etxalarkoa, apirilaren 21ean.

Mireia Bertiz Conde, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 1ean.

Maria Saldias Irigoien, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 18an.

HERIOTZAK

Gervasia Jauregi Inda, Amaiurkoa, apirilaren 18an, 83 urte.

Juan Jose Apeztegia Tapia, Lesakakoa, apirilaren 24an, 62 urte.

Maximo Hernandorena Etxarri, Lesakan, apirilaren 19an, 69 urte.

Koxe Juan Tapia, Sarakoa, apirilaren 4an, 91 urte.

Francisco Jabier Baiona Dendarieta, Etxalarkoa, apirilaren 3an, 70 urte.

Miguel Mariezkurrena Telletxea, Leitzakoa, apirilaren 16an, 88 urte.

Lorenza Perurena Sagastibeltza, Leitzakoa, apirilaren 24an, 84 urte.

Micaela Telletxea Mutuberria, Urrozkoa, apirilaren 5ean, 91 urte.

Antonia Artzuaga Saldias, Urrozkoa, apirilaren 18an, 71 urte.

Micaela Goñi Astiz, Donamariakoa, otsailaren 19an, 99 urte.

Juan Jose Mindegia Arruabarrena, Donamariakoa, martxoaren 9an, 93 urte.



**Maximo
HERNANDORENA
ETXARRI**

Zu joan zara
baina zure oroimena
gurekin geldituko da.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA
Bera, 2000-04-19



**Maximo
HERNANDORENA ETXARRI**

Hegoak ebaki banizkion,
neria izango zen
ez zuen aldegingo
bainan horrela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik txoria nuen maite.

**Bortzirietako Parrokiarteko
Kontseiluak ez zaitu aisa
ahantziko.**



**Juan Jose
APEZTEGIA TAPIA**

Egun gogor hauetan
gure saminarekin bat egin
duzuen guziei eskerrik
beroenak.

FAMILIA
Lesaka, 2000-04-24

Amets Arzallus nagusi Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalean

Goizuetako azken saioan bertso ederrak aditu ziren eta hagitz berdindua suertatu zen

Amets Arzallus, 16 urteko hendaia irabazi du aurten Nafarroako Bertsolarien txapelketa. Apirilaren 16an Goizuetan egindako azken saio ederrean berak eskuratu zituen punturik gehien, 564'5, eta honela Nafarroako txapela irabazi duen bertsolaririk gazteena da. Bigarren saria Xabier Legarreta aranoarrak etxeratu zuen, 557 punturekin, eta hirugarrena Estitxu Arozena lesakarrak, 555 punturekin.

Laugarren eta bosgarren



postuan berdinduta akautu zuten Hendaiko Sustrai Koli-

na eta Lesakako Xabier Silveirak, 552na punturekin. Goizuetako saiora bitarte txapeldu zen Bittor Elizagoi en arraioztarra seigarren izan zen, 548 punturekin. Zazpigarren postua Manolo Arozenarentzat izan zen eta Iñigo Olaetxea lesakarrak itxi zuen zortzikotea, 543'5 punturekin.

Bertso saioa polita eta berdintasun haundikoa izan zen. Horren erakusgarri, finalean aritu ziren zortzi bertsola-

rien artean hogeituneko diferentzia bertzerik ez izatea.

HOGEI URTEZ PRESO EGONDAKO OSABARI ESKAINITAKO TXAPELA

Amets Arzallusek Pilar Untxalo Goizuetako alkatesaren eskutik jaso zuen txapela. Arratsaldeko momenturik hunkigarriena hogeituz barrenean egon ondotik bezperan kartzelatik ateratako osabari eskaini zionean bizitu zen. Jendeak txalo zaparrada ikaragarria eskaini zion bertso honi eta pilotalekuan zegoen preso ohiak ere agurtu behar izan zuen.

Kantari ttikiak bikain aritu ziren Haur Kantari txapelketan

Apirilaren 16an egin zen finala Gaiarren

Apirilaren 16an egin zen Iruñeko Gaiarre antzokian Nafarroako Haur Kantari txapelketaren finala. Azken urteotan bezala, hainbat sari etorri ziren eskualdera. Ttikien mailan, bakarka, Josune Elgorriaga beratarra izan zen garaile. Taldeka, berriz, Berako Ttipittariak taldea (Eider Pikabea, Maddi Sese, Idoia Iratzoki, Maite Telletxea, Hodei Iriarte, Andrea Plaza, Aitor Iantzi, Julien Baleztena, Jon Zelaieta eta Ainhoa Lantz) bigarrenak izan ziren, Ilunberriko Arangoiti ikastolako taldearen gibeletik.

Gaztetxoen kategorian oraindik sari gehiago izan ziren eskualdeko kantariantzat. Bakarka, Aranoko Maider Ansa izan zen, bertze behingoz, irabazlea. Bikoteka, Leitzako Institutuko Maddi Olano eta Birjina Mariezkurrena nagusitu ziren. Taldeka, azkenik, hiru lehendabiziko sariak eskualdera ekarri zituzten. Lehen saria Goizuetako eskolako Haizea taldeak (Izaro Goikoetxea, Maider Ansa, Maider Etxeberria, Ixiar Lujanbio, Itxaso Lujanbio, Naiara Arotzena eta Mari Jose Mitxelena) eskuratu zuen. Bi-



Maider Ansa aranoarrak bakarka eta, Haizea taldearekin, taldeka irabazteaz gain, ahotsik onenaren saria eraman zuen.

garrena, Leitzako Institutuko Izarpe taldearentzat (Maddi Olano, Oihana Saenz, Birjina Mariezkurrena, Ainhoa Billabona, Itxaso Estanga eta Mari Jose Larrea) izan zen.

Berako Labiaga ikastolako Attonarriak taldeak (Andrea Guroz, Ane Bergara, Maite-txu Goia, Eneritz Lantz,

Iñaki Escudero, Elisabet Morcillo, Ane Igartzabal, Asier Santamaria, Olaia Oliveira eta Amaia Agirre) eraman zuen hirugarren saria.

Maider Ansak ahotsik onenaren saria eraman zuen, Izarpe taldeak ahots moldaketa onenarena eta Ttipittariak aurkezpen onenarena.

Txaruta elkarteko pilotariek emaitza ederrak lortu dituzte Zizurko txapelketan

- Lau txapeldun, hiru azpitzapeldun eta lau hirugarren postu lortu dituzte
- Josu Baleztena eratsundarra txapelketako pilotari onena izendatu dute

Akautu berri den Zizur Nagusiko bortzgarren eskuz banakako txapelketan emaitza bikainak eskuratu dituzte Txaruta pilota elkarteko pilotariek.

Ttikienetik hasita, 1992an sortutakoen artean txapeldun suertatu zen Aritz Juanenea saldiastarra. Finalean, Antton Jauregi amaiurtarrari irabazi zion. Laugarren postua, berriz, Joseba Iraola almandoztarrarentzat izan zen.

1991n sortutakoen artean, Unai Madariaga urroztarra laugarrena izan zen.

1990. urtekoetan, Xabier Madariaga urroztarra izan zen txapelduna eta Jon Arretxea gartzaindarrak hirugarrena.

1989. urtean jaiotakoen artean, Irurritako Patxi Barberena finalean ailegatu zen, baina galdu egin zuen.

1988koetan, Igor Arregi donamariarra txapeldun izan zen.

1987. urtekoetan, txapela ez, baina bigarren, hirugarren eta laugarren postua eskuratu zuten Mikel Iraola almandoztarrak, eta Oskar Urrutia eta Alain Ezkurra saldiastarrak.

1984an sortutakoetan, Unai Arraztoa elizondarra hirugarrena izan zen.

19 urte bitartekoetan, Josu Baleztena eratsundarra suertatu zen txapeldun eta Patxi Jaurena urdazubiarra hirugarren. Gainera, txapelketa osoko pilotari onenari emandako saria ere Josu Baleztenak jaso zuen.

BERAKO ESKOLAKOAK ERE ONGI IBILI DIRA

Txarutakoak haina pilotari ez zituzten aurkeztu, baina Berako pilota eskolakoak ere ongi ibili ziren Zizurren. 1988an sortutakoen artean, Iñigo Blas laugarrena izan zen. 1985. urtekoetan Markel Etxebestek postu bera eskuratu zuen eta berriz horrenberriz egin zuen Iñaki Etxegaraik, 1984an jaiotakoen artean.



Malerreka eta Baztango pilotariak elkartzen dituen Txaruta elkarteko ordezkariak sari ugari lortu dituzte Zizurren.



Berako 10. mendi bizikleta ibilaldia igandean burutuko da

- Beti bezala, bi ibilbide izanen dira aukeran

Igande honetan, maiatzak 7, goizeko 10etatik aitzinera burutuko da Gure Txokoa elkarrekin, Berako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz hamargarren urtez antolatutako mendi bizikleta ibilaldia. Izen ematea Gure Txokoaren egoitza egiten ahal da, goizeko 8,30etatik aitzinera. Horretarako 14 eta 16 urte artekoak 500 pe-

zeta ordaindu beharko dituzte eta 16 urtetik goitikoak 1.000 pezeta.

Urtero bezala, partehartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran. Laburra 18 kilometrokoa izanen da eta Usategietara ailegatu ondotik, zuzenean Berara jaitsiko da. Luzea auke-ratzen dutenek, Iamoteneatik abiatu eta Sarralla, Zamarreko-

borda, Etxeberriko-borda, Benta Elizalde, Benta Gorria, Usategieta, Landagaita, Kondendia-ga, Lizuniaga, tiro zelaia, Idoia eta Ardanbide igaro ondotik, berritro herrira itzuliko da, 28 kilometro osatuz.

Proba akaututakoan kirol materialaren eta bizikleta baten zozketa egingen da. Hameketakoa ere banatuko da.

AGENDA EGUNEZ EGUN

TOPAKETAK

BAZTAN-BIDASOA

► Maiatzaren 3tik
17ra
Hitzaldi eta mahainguruak.

ANTZERKIA

BERA

► Maiatzaren 6an
"El florido pensil",
Tanttaka antzerki taldearen.
Arratseko 10etan
Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

LESAKA

► Maiatzaren 5ean
Ainherak taldea eta
Pascal Elixondoborde
bakarlaria Zuberoatik.
Gaueko 10etan Arrano
elkartean.

► Maiatzaren 6an
arratsaldeko 7etatik aitzineria Plazan,
Bortzirietako musika talde ezberdinen (abesbatza, trikitilari, txistulari, akordeolari, musika banda) emanaldia,
Tantirumairu dantza taldeko kideekin batera.
Tantirumairu ikastolaren
25. urteurreneko ekitaldien barnean.

OSPAKIZUNAK

BAZTAN

► Maiatzaren 7an
Hamabi Ordu Eskuaraz.
Goizean argi soinuak
herriz herri. Eguerdian
antzerkia eta bazkaria
Elizondon. Arratsaldean
dantza saioa.

SENPERE

► Maiatzaren 14an
Iparraldeko Euskararen
aldeko besta 17. aldikotz Senpereko aintziraren inguruan.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

MAIATZAREN 3tik 5era	
	ASTEAZKENA ORTZEGUNA ORTZIRALA
11:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
13:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
17:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
21:00 Berriak Berriak Herriz Herri	
MAIATZAK 8, Berako X. Mendi Bizikleta Ibilaldia Gure Txokoak hamargarren urtez antolatutako mendi bizikleta ibilaldiaren irudi ikusgarrienak asteleheneko txokoa Solas saioan.	
MAIATZAREN 8tik 12ra	
	MAIATZAK 15 Herri Urrats Senperen Joan den urtean bezalaxe. Senpereko aintzia inguruan izanen dira ttipi-ttpa telebistako kamarak. Maiatzaren 14an ospatuko da hamazazpigarren aldiz Herri Urrats. Iparraldeko ikastolen aldeko besta haundia. Biheramonean, bertan bidutako jendearen itziak, musika eta giroa etxean goxo-goxo ikusteko eta aditzeko modua izanen duzu. Berrien tartean.
MAIATZAREN 15etik 19ra	
ASTELEHENA	ASTEARTEA ASTEAZKENA ORTZEGUNA ORTZIRALA
11:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
13:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
17:00 Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.) Berriak (errep.)	
21:00 Berriak Berriak Berriak Berriak Berriak	
Jokoa Solas	Herriz-herri

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.300 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 178 pta / kilo.
- **Zerramak**: 100-105 pta. / kilo, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta / kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa510
- **Urruxak:** Pta / kg. Kanal
Extra570
1.koa560
2.koa520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 350 Pta. / Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta. / Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Egunak»

IÑAKI de JUANA CHAOS

Txalaparta

Euskal literaturak gartzelako gaia jorratzen duten hainbat idazle eman ditu, halaberharrez, azken hamarkadetan. Iñaki de Juana Chaos gipuzkoarra 1987an atxilotu zuten Madrilan eta Espainiako legeak onartzeko duen zigorrak handiena ezarri zioten, hainbat delitu leporatuta. Ordutik penintsula guziko 14 espetxe desberdin ezagutu ditu, eta gaur egun Valdemoron dago preso. Jarri dioten zigorra 10.950 egu-

nekoa da, eta egun hoietako batzuetan idatzitako apunteek osatzen dute liburuaren bizkarrezurra. Dena den, ez da erraten ahal gartzelako egunkari bat denik, ordena kronologikorik gabe agertzen baitira bata bertzearen ondotik. Gartzelako bizipean bildu ditu idazleak, modu autobiografikoan hein handi batean, baina bere inguruan dituen presoekin gorabeherak agertuz, aldiberean.

Zer egiten ahal dugu aitatxirekin?

Aitatxi edo amatxirekin zer egin, hori da familia aunitzetan sortzen den zalantzetako bat. Nora eramanez dugu? Zahar-etxera? Etxean utziko dugu?

Horrelakoetan hoberena pertsona adindua bere senideekin egotea da, noski, baina hori bai, eurek merezi duten maitasun, goxotasun eta laguntza guzia ematen ahal baldin bazaie. Batzuetan, zoritxarrez, hau ez da horrela izaten. Horregatik, horren afera garrantzitsua erabakitzeke irizpide batzuk eman nahi nituzke:

ETXEAN GELDITU:

- Adineko pertsona horretan tematzenean. Senideek ematen ahal dioten maitasuna zentru batean ematen ahal diotena baino hobea da beti.

- Ezin zaionean bisitarik egin edo egiteko asmorik ez dagoenean. Erresidentziara eraman eta bisitarik hartzen ez baldin badu arrot bako-rik sentituko da adinekoa.



Adineko pertsona batzuk nahiago dute etxean gelditu.

- Erresidentzia bere bizitzaren azkenarekin identifikatzen baldin bada. Horrek lur jota utziko du eta depresioan eror daiteke.

- Bizitza arrot aktiboa edo ibilbide profesional garrantzitsua izan baldin badu. Litekeena da erresidentzian baztertu-rik sentitzea.

ERRESIDENTZIAN:

- Familia barenen istiluak daudenean.
- Adineko pertsona eri dagoenean eta ezin denean aditu bat hartu egune-
ro atenditze-ko. Zahar etxe-
an profesio-
nalen esku egonen da egun guzian.
- Seme-ala-
bek adineko-
aren zainke-
ta txandaka egiten dute-
nean, batez ere txandak 6

hilabete baino motzagoak ba-
dira, zaharra erazia sentitu-
ko baita.

- Aitatxi-amatxiak bere adineko pertsonekin harre-
manak izateko gogoia erakus-
ten baldin badu.

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

BERA

► Maiatzaren 5ean «Jousilouli».

► Maiatzaren 12an «Ekintza».

► Maiatzaren 20an «Fist Fucking». Arratseko 10,30etan, Pui ostatuan.

OIARTZUN

► Maiatzaren 5ean «Betagarri».

► Maiatzaren 6an «Egaña eta Sarasua».

► Maiatzaren 7an «Species».

► Maiatzaren 13an «Mephiskaphes (USA) + King Prawn (LONDON)». 23etan, Pagoa aretoan.

ETXALAR

► Maiatzaren 6an «En Medio».

► Maiatzaren 20an «Josetxo Goia». Herriko Ostatuan, 22etan.

SARA

► Maiatzaren 13an Herri Urrats bezperako kontzertua: Kashbad, Dut, Ekintza, Saiberri + bertsolariak, txaranga... Arratseko 8etatik aitzine-
ra.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

► Maiatzaren 1etik 7ra Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

► Maiatzaren 8tik 14ra Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Maiatzaren 15etik 21era Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

DISKAK



«Selektah kolektiboa»

SELEKTAN KOLEKTIBOIA

ESAN OZENKI

Hip-hoparen zaletasunak bul-tzatuta elkartu dira Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroako Se-lektah Kolektiboaren kideak. New Yorkeko karriketan sortu zen musika estilo hau putzua gurutzatu eta Espainiako hiri-buruetan erroto zen 90. ha-markadan, baina Euskal Herrian ez du orain arte bate-re oihartzunik izan. Beraz, Euskal Herriko pertsonen be-larri eta gorputzetara iristeko

helburuarekin sortu zen kolekti-bo hau.

Lan honetan bildutako kant-uak Molte MC, Wanka, Daddy Jell eta D. Z.k sortuak dira. Bertan, kolektiboak dituen ideiak azpi-marratzen dira: Euskal Herriak dituen muga politikoak eta gi-zartearen muga kapitalistak sa-latzen dituzte. Kazetarien, torturatzailen... lana kritikatz-
en duten hip-hop euskaldunaren bitartez.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188 +

...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzan emanen dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Garaje haundia. ☎ 948 514 213.

IGANTZI. Herriko sarreran etxe adosatua salgai, bere lur-eremuarekin. ☎ 948 637 560 (19,30etatik aitzinera).

DONEZTEBE. Pisua salgai. 3 gela, 2 bainu, sukaldea eta jangela. ☎ 619 636 405.

LEITZA. Pisua salgai, baje-
rekin edo gabe. ☎ 948 610 638.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, baje-
rak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

NARBARTE. Pisua emanen nuke errentan. ☎ 948 634 113.

ETXEBIZITZAK

104 EROSI

Baserria erosi edo errentan hartuko nuke Bera eta Sunbilla arteko tartean. Ez dadila handia izan eta lur pixko batekin. ☎ 943 642 530.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Kanttonberri karrikan 100 m²ko lokala errentan emateko. Denda jartzeko prest. ☎ 689 232 666 (Iñaki).

SARA. 800 m²ko gordeleku errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira: 400 pta m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

BERA. Garaje itxia errentan emanen nuke Burga auzoan, Telefonica ondoan. 2 kotxerendako lekua badu. ☎ 948 631 033.

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

KOMERTZIALAK

behar dira salmentan aritzeko

- ESKAINIKO DA:
- Lan kontratua
 - Soldata finkoa + komisioa
- BALORATUKO DA:
- Eskarmentua antzeko lanetan
 - Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia
 - Eskualdean bizitzea
 - Ezinbestekoa autoa izatea

Interesatuak deitu **948 631188** telefonora

BERA. 90 m²ko lokal komertziala errentan emanen nuke, Agerran, errepede ondoan. ☎ 948 631 094 (arratsaldeko 7etatik aitzinera).

LESAKA. Elizaren gibelera lur-eremua salgai. Etxea egiteko modukoa. ☎ 948 637 183 (arratsetan).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.

- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

arantzazurgingegia

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osifta auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

Leitzan salgai

- Leitzalarreko bidean eraikitzen ari diren azkeneko 4 etxeak salgai. 3 logela, bi bainu, sukalde montatua, baje-
ra eta lorategi ttikia.
- 2 hilabetetara bifamiliarra eraiki behar da (2 etxebizitza). Bakoitzak 400 m²ko lorategia izanen du. Informazioa daukat.
- Patxi Arrazolan bizitzen jartzeko pisua salgai. Ia-ia dena berria.
- Herri erdian luxuzko pisua salgai. 2 logela.
- Amazabal goian pisua bajearekin salgai. Prezio ona.
- Amazabalen pisu dotorea salgai.
- Amazabalen pisua berritzea salgai.

- Depósito ondoan 4.000 m²ko lur-eremua salgai. Etxea egiteko toki eguzkitua eta baimena.
- Bajera salgai. Toki polita.
- Baserrira salgai, 50.000 m²ko lur-eremuarekin. Erreforma behar du.
- Basakabi ondoan, astebururak igarotzeko lurra, oso polita eta eguzkitua. Borda eraikitzeko toki aproposa.
- Borda salgai Leitzalarrean.
- Antena ondoan borda salgai, lur-eremuarekin.
- Basakabi ondoan lur-eremu dotorea salgai. Edozein gauza egiteko aproposa.

Ezkurra

- Baserrira salgai, 30.000 m²ko lur-

BULDAIN

☎ 649 476 615 • 948 510 167
goizetan deitu

eremuarekin. Berritua eta granja-eskola jartzeko aproposa.

Areso

- Hiru pabilioi salgai.

Lekunberri

- Pisua bajearekin salgai.

Zangotza

- 2.708 m²ko lur eremua salgai. Oso dotorea da eta 60 m²ko etxea eraiki daiteke, asteburuetarako egokia.

PITTI

ESKABAZIOAK



☎ 616 513491 • DONEZTEBE

LANA

301 ESKARIAK

Neska euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo haurrak eta helduak zaintzeko. ☎ 629 373 364.

LANA

302 ESKAINTZAK

☎ 948 13 11 36

LODITASUNA?
96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez egiten da.

Langile bat behar da etxeko lanak egiteko igandetan eta udan. ☎ 948 630 734.

Erne! Hemen lanean hastekoa den telekomunikazio konpainia estatubatuar batek langileak behar ditu. ☎ 948 635 173/629 373 364.

Teilatuak egiteko **zurginak** behar ditut. ☎ 608 194 638 edo 640 500 089 (Joxemari Zamora).

Bi sukaldari eta bi kamarero behar dira Iruñeko jatetxe batean. ☎ 948 637 050 (bulego orduetan).

Irungo jatetxe batean lan egiteko emakume **zerbitzaria** eta **sukaldaria** behar dira, 45 urte baino gehiagokoak. Berdin da esperientziarik ez izatea. ☎ 943 621 848.

Zerbitzaria behar dugu Igeldoko erretegi batean lan egiteko. Lo egiteko toki bertan. ☎ 943 212 979 edo 608 575 113.



MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Skoda Felicia salgai. OUV matrikula, 13.000 kilometro. Urte bat du. ☎ 948 630 799.

Renault 11 salgai. NA-P, ITV pasatu berria. 75.000 pta. ☎ 948 450 490.

Renault Clio 1.8i salgai. NA-AM. 60.000 km. Estrak. ☎ 948 635 219 edo 666 419 045.

Nissan Terrano I salgai. ☎ 948 510 321.

Aluminiozko **4 lanta** salgai. 5 makilekoak. 185/60 eta R-14. Merke. ☎ 948 630 280 (13etatik 14etara).

Puch Minicros motoa salgai. Hagitz gutti erabilia eta prezio onean. ☎ 948 631 499.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAU MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

C15 D, Express D,
Astra Caravan TD, 205 GT,
Corsa D, Lada Niva, R-19 D.

SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Cocker Ingeles eta Fox terrier **zakurkumeak** salgai. ☎ 948 637432 - 948 63519.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

☎ 948631362 • Legia 13 • BERA



DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Husquvarna 272 motozerra salgai. 110.000 pezeta. ☎ 948 637 461.

Kanpineko **karro-denda** salgai. Ranger markakoa, alemaniarra. Gurpil haundiak, autofreno, 1,40ko bi ohatze, armairua, sala, abantzea... ☎ 943 619 383.

Egongelako mobleak salgai. Sofak, liburutegia eta mahai borobila bi aukire-

kin. Elkarrekin edo bereiz. ☎ 948 631 182.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Zorionak **Zigako** Itxaso Otondori apirilaren 24an 14 urte bete dituelakoz. Ateratzen garenean ea gonbidatzen diguzun kas bat hartzera. Zure kuadrila.



IGANTZIKO HERRIKO ETXEA

**2000KO DENBORALDIAN
IGANTZIKO IGERILEKUAREN
MANTENIMENDU, GARBIKETA
ETA FUNTZIONAMENDU LANAK
ESLEITZEKO LEHIAKETA**

HASIERAKO PREZIOA:

700.000 pta, BEZ barne, denboraldi osoa.

ESKAERAK AURKEZETAKO EPEA:

2000ko maiatzaren 12ko eguerdiko 1ak arte.

BALDINTZA PLEGUA:

Herriko Etxeko Idazkaritzan dago.

*Igantzi, 2000ko apirilaren 18a,
Eduardo MIGUELENA LEGASA*

Aurten bi Telefono Gida batean



Telefono Gida
Eskualdeko komertzio, lantegi eta bertze hainbat zerbitzuren telefonoekin.

Zure telefonoaren ondoan edukitzeko ezinbertzeko laguna. Ez duzula eskuratu?

Deitu
948 631188 telefonora

Partikularren telefonoak
Eskualdeko telefono guziak, herriz herri antolatuak.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.




Iraide Sagar-dia Amiano gazteluarrak apirilaren 18an 8 urte bete ditu. Zorionak aitaxo, amatxo eta Erik anaiairen partetik.



Leire Eltzaurdia beratarak maiatzaren 19an 7 urte beteko ditu. Zorionak aita eta amaren partetik.



Leire Eltzaurdia Mendiberrri beratarak maiatzaren 19an 7 urte beteko ditu. Zorionak Arizkongo familiaren partetik. Muxu bat.



Ainhua Uragana Larralde hondarribitarak maiatzaren 12an 13 urte beteko ditu. Zorionak Berako familiaren partetik. Ondo pasa!



Itsaso Fagoaga Etxarte lesakarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



Andoni Lazkanotegi Matxiarena beratarak martxoaren 12an beteko ditu 3 urte. Muxu bat attatto eta amattoeren partetik.



Esty Gamio Lizasoain gazteluarrak 18 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Zorionak eta kaso mozkortu gabe! Josebto eta Ainhua.



Joseba Irazoki Goienetxe etxalartarrak maiatzaren 1ean bete ditu 3 urte. Zorionak morrosko! Familia guziaren partetik.



Josu eta Olaia Altzuri aurtiztarrek maiatzaren 2an eta 11n beteko dituzte urte bat eta sei urte. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Mikel lehengusuaren partetik. Muxu handi bat.



Gorka Telletxea Reyes beratarak 6 urte egin ditu apirilaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



Beñat Erkizia Solanak 2 urte beteko ditu apirilaren 27an. Zorionak familiaren partetik eta batez ere Lukenen partetik. Zorionak potxolo!



Zumai Txoperena Eugi igantziarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Zorionak gurasoen eta familia osoaren partetik.



Mikel Ezkietia Huizi atarrabiarak maiatzaren 4an bete ditu 6 urte. Zorionak bere gurasoen eta Beñaten partetik.



Idoia Apeztegia Zozai beratarak 25 urte beteko ditu maiatzaren 18an. Zorionak eta muxu bat zure iloba Josebaren partetik.



Ane Telletxea Iribarren do-neztebarrak apirilaren 30ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat zure familiaren partetik.



Ibaiek eta bere attak urteak beteko dituzte maiatzaren 7 eta 20an. Zorionak bieri!



Ane Tejon iruindarrak urtea beteko du maiatzaren 6an da. Gure barbantxori urte askoz! Ama, atta, Maite, Argimiro eta Isabel.



Silbia Telletxea Iraola arantzarrak maiatzaren 3an beteko ditu urteak. Zorionak familia guziaren partetik.



Ane Etxepetere Burgetek 2 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Berako eta Lesakako familiaren partetik.



Mikel Apeztexea Gogortzak maiatzaren 2an urtea beteko du. Zorionak Goizueta eta Leitzako familien partetik.



Ainhua Larretxea Agirre beratarak 4 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Aunitz urtez atta eta amaren partetik. Muxu putxurrita!



Jaione Telletxea Mendigutxia lesakarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 8an. Zorionak familiaren eta bereziki Amaiairen partetik.



Doneztebeko Naroak urtea beteko du maiatzaren 18an. Zorionak eta musu asko aitona, amona eta osabaren partetik.



Leire Nitxela Gamio arantzarrak 11 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak familia guziaren partetik.



Lorea Artola Goñi irundarrak maiatzaren 8an 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu handi bat familiaren partetik.



Jon Zelaia Danboriena beratarak 10 urte bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak eta lau muxu. Uxue, ama, aita eta amatxi.

Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAKO helbidera.

Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631 188



Bortzirietako Herri Haurtzaindegia

- Hilabete batzuk, urtebete edota bi urte dituzte haurrentzat.
- LOGSE hezkuntza legearen arabeko proiektu berri-berria.
- Bortzirietako gizarte nahiz pedagogia zerbitzu gisa diseinaturik.

informazioa

948 630 172



Zuzendaritza: Fernando Bernués /
Mireia Gabilondo

EL FLORIDO
PENSIL

ANDRES SOPEÑA MONSALVE

Eskola nazionalkatolikoaren oroimena

EGUNA:

Maiatzak 6, larunbata

ORDUA:

Arratseko 10etan

TOKIA:

Berako Kultur Etxean

SARRERAK:

Berako Errekalde eta Lesakako Kattu ostatuetan

Momentuan 1.000 pta

Aitzinetik 800 pta

ANTOLATZAILEAK

Berako Euskara Batzordea

Bortzirietako Euskara
Mankomunidadea

